

Kultura

Inoizko kultur ekitaldi kopururik handiena, 250 proposamen baino gehiagorekin, 50. Durangoko Azokan > 11



Zelaietako hirigintza-berrantolaketarako proiektua alegazio epean sartu da

Abadiñoko Udalak Zelaietako berrantolaketa urbanistikorako osatu duen proiektuari herritarrek beraien ekarpenak egiteko aukera dute alegazioen epean. Proiektuak Zelaietarako auto bako espazio gehiago ahalbidetuko duela azaldu du gobernu taldeak. EH Bilduk, aldiz, parte-hartze prozesua ez dela egoki egin iritzita, sinadura bilketa jarri du martxan. > 3

“Ez da segurua Munduko Txapelketan parte hartuko dugula; gura dugu, baina justu gaude” > 15



Txabi Ardanza | Abadiñoko Sokatira taldea

Tapoi bilketa solidarioak

Etxe, eskola, taberna eta denda askotan batzen dituzte plastikozko tapoiak, gaixorik dauden umeei diruz lagundu ahal izateko. Gainera, tapoiak birziklatu egiten direnez, ingurumenak ere eskertzen du. > 2



Croqueta y Presumida

Hamalau motatako eguneko krocketak!

Gabon hauetan oparitu **GUTIZI** bat!

ENKARGOAK: 946 21 55 53

Barrenkalea 4, Durango

*Naturalak %100
Kontserbantez gabe!*



Facebook



Twitter



Instagram

www.croquetaypresumida.com

Durango > 4

JAEDek 61 familiari argia eta gasa ordaintzen lagundu die

Izurtza > 6

Udaletxean termitek egindako kaltea konponduko dute

Zornotza > 7

Euskal literaturaren azterketak Onaindia bekari esker

Durangaldea > 9

Durangoko Mintzodromoak 200 lagunetik gora bildu ditu

> Herririk herri

Elkartasuna oinarri duen birziklapena

Gaixorik dauden umeei laguntzen diete tapoiak batuta

> ERREPORTAJEA M. Onaindia
Gauza txikietatik proiektu handiak sortzen dira sarritan. Hori gertatu da, azken urtetan, plastikozko tapoien bilketa. Elkartasuna oinarri duen birziklapen herritarra da; etxe askotan egiten diren keinu txikiak dira, baina emaitza handia dutenak: horri esker, gaixorik dauden hainbat umeri laguntzen zaie, eta ingurumenak ere eskertzen du.

Kasuz kasu eta ahoz aho zabaltzen dira tapoien bilketa kanpaina gehienak. Antolaketa ofizialik eduki barik eta hain herritarra izanda, tapoiekin lortzen den dirua nora joaten den galdetzen dute askok. Durangaldean garatzen dabilzan esperientzia bi ezagutu ditu ANBOTOK, protagonisten ahotik.

Rober eta Geu Be

Durangoan Simply supermerkatuan egiten du lan Rober Egurbide mutrikuarrak, eta zortzi urteko alaba gaixorik

Terapien gastuak ordaintzen laguntzeko hasi zen tapoiak batzen, joan zen ekainean

dauka, oraindik gaitza diagnostikatu barik. Hiru hilegaz somatu zituzten sintomak, eta, geroztik, hara eta hona ibili dira. Madrilera urtean birritan joaten dira estimulazio saioak hartzeko. Terapien gastuak ordaintzen laguntzeko hasi zen tapoiak batzen, joan zen ekainean, eta Lemoako enpresa batean biziklatzen ditu. "Jendeak uste du aulkiak eta ordaintzeko

izaten dela, baina, hori lortzeko, tapoi asko batu behar duzu. 200 euro ematen dizkizute tona bakoitzeko".

Simplyn ontzi bat dauka, Zal-dibarko eskolatik ekartzen dizkio lankide batek, Mutrikutik jasotzen ditu eta Geu Be elkarretetik ere bai. "Eskerrak eman gura dizkiet guztiei".

Orain hiru bat urte hasi ziren tapoiak batzen Geu Be elkarrean, Lekeitioko ume bati zutik

"Alde batetik, umeari laguntzea lortzen genuen, eta bestetik, gure gazteak inplikatzeko ere bai"

egoteko gailu bat finantzatzeko laguntzeko. Honela gogoratzen du Justi Alfaro hasiera hura: "Oso interesgarria iruditu zitzaigun. Alde batetik, umeari laguntzea lortzeko genuen, eta bestetik, gure gazteak inplikatzeko ere bai". Sarri, tapoiak gazteek eurek entregatu izan dituzte, zuzenean.

Durangoan, tapoiak batzeko erreferentziatzeko lekua izan da herritar askorentzat Geu Be-ren egoitza, baina gainezka egin die, Alfaro dioenez: "Astebetean, sekulako tamaina hartzen zuen tapoi piloak. Une honetan, bilketa geratu egin dugu, tapoien gela zomorroz bete zitzaigun-eta!". Orain, Simplyra eramateko deia egin dute.

Mari Carmen eta Maiztegi

Mari Carmen Zarandona zornotzarrak Usansolon ezagutzen duen familia bati laguntzen dio tapoiak batzen. Besteak beste, Iurretako Ertzain-etxera eta Maiztegi eskolara joaten da.



Geu Be elkarteko gazteak eta Justi Alfaro, euren egoitzan.



Mari Carmen Zarandona, Iurretako Maiztegi eskolan, tapoiak jasotzen.



Tapoien ontzia, Simplyn.

Ikasleek eskolako sarreran uzten dituzte tapoiak, eta Rosi Lizarralde behargina arduratzen da horiek pilatzeaz. "Ikasle asko oso kontziente dira ekimenaz. Gurasoek esaten digute umeei ezin dituztela tapoiak zaka-rrontzian ikusi". Lizarralderen arabera, dagoeneko ez dute dei berezirik egiten, ikasleek euren kabuz ekartzen dituzte eta tapoiak. "Hiru edo lau zabor poltsa tapoiez betetzen direnean, Mari Carmen deitzen diot", azaldu du Lizarraldek.

Kate solidarioa Iurretako ikasleekin hasi, Lizarralde eta Zarandonaren eskuetatik pasa, eta beharrezko duen Usansoloko familian amaitzen da. Baina, beharra dagoen artean, kateak ez dut etenik izango.

Seur fundazioak Estatuko 106 umeri lagundu die

Seur fundazioak badu tapoi bilketa sistema bat

Duela lau urte, familia euskaldun bat izan zen tapoiak batzen aitzindari, zutik egoteko gailu bat lortu guran. Tapoiak lortu, eta Seur fundazioak lagundu zien garraiatzen. Hortik aurrera, ume gehiagori laguntzea erabaki zuen Seurrek, eta, dagoeneko, Estatu osoko 106 umeri lagundu die.

Ramon Mayo presidentek kontatu duenez, Seurren bulegoetan tapoiak jasotzen dituzte, eta banatzaileek ere

hartzen dituzte, ibilbideetan sartzen bada. "Horrela, ekin-tzak ez dauka kosturik, eta garraioan ez dugu kutsatzen". Urteotan, 3.500 tona birziklatu dituzte, eta horren truk 811.000 euro eman dizkiete beharra eduki duten familiei.

106 hartzailetik, hasierakoa izan zen euskaldun bakarra, baina, Mayoren arabera, hemen asko laguntzen da: "Eskola eta pertsona talde garrantzitsu batek laguntzen du".

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko azaroaren 20a,
13. urtea - 611. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Alegazio epean dago Zelaietako hirigintza-berrantolaketa proiektua

Azaroaren 9an udalaren proiektua ikusgai ipintzeagaz batera hasi zen alegazioak aurkezteko hilabeteko epea



Txanporta plaza eta ingurua oinezkotzea jasotzen du, besteak beste, aurkezturiko proiektuak.

ABADIÑO Itsaso Esteban
Udaletxean, Txanporta kultur etxean, Udal Mediatekan, eta jubilatuen egoitzan dago ikusgai Abadiñoko Udalak Zelaieta auzoaren berrantolaketa urbanistikorako osatu duen proiektua. Legeak markatzen duen hilabeteko epea zabaldu zuen udalak,

azaroaren 9an, herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izateko. Gobernu taldeak jakitera eman duenez, hiru bide izango dituzte herritarrek euren ekarpenak egiteko: udalaren webgunean bertan egin ahalgo dituzte, baita whatsapp bidez ere, zein Udaleko bulego teknikora joanda ere.

Txanporta plaza eta ingurua oinezkotzea jasotzen du, besteak beste, gobernu taldeak publikatu duen proiektuak. Zamaletako ibilgailuak baino ezingo dira sartu plazara, ordutegi mugatu batean. Bestalde, autoak hiru lekutik sartu ahalgo lirakete Zelaietara: Iturritxo kaletik,

Kalbario ingurutik eta Muntzaratzetik. Auzora Gaztañoditik sartzeko egun dagoen aukera kenduko lukete, beraz.

Navarro alkateak azpimarratu du udalaren proposamen horren oinarrian joan zen lege-gintzaldian egin zen herritarren parte-hartze prozesua dagoela. Gobernu taldeak zabalduriko prentsa oharrean azaltzen denez, “proposamenak aztertu ostean, udalak hirigintza-berrantolaketa proiektu hau prestatu du, Zelaietan autorik bako leku gehiago ahalbidetuko dituen”. Proiektuak ez duela inbertsio handirik eskatuko ere azpimarratu du gobernu taldeak.

EH Bilduren kritika

EH Bilduk hala eskatuta, Zelaietako berrantolaketa proiektuaren parte-hartze prozesua duela bi urte hasi zela ekarri du ezker abertzaleko koalizioak gogora, eta herritarrek eta teknikariek hainbat sai egin zituztela auzoko hirigintzaren inguruan gogoeta egiteko. Horren ondo

ren egin beharrekoa zen parte-hartze prozesuko bigarren fasea ez dela burutu kritikatu du EH Bilduk prentsa ohar batean. Proiektuaren zehaztasunak ez direla auzotarrek landu: “Udalak hainbat erabaki alde bakarretik hartu ditu, eta herritarrek protesta egin ahala proposamenak aldatuz joan da”.

Gobernu taldearen proiektuak auzoaren etorkizunerako inportanteak diren hainbat alor ez dituela kontuan hartzen uste du EH Bilduk. Ez dagoela planik, esaterako, irisgarritasunari, segurtasunari, bizikletentzako bideei, edota aparkalekuen distribuzioari dagokienez.

Sinadura bilketa

“Teknikariek proposamenak egitea eta auzotarrek horien artean aukeratzea” da proiektua osatzeko jarraitu behar litzatekeen bidea, EH Bilduren iritzian. Eta udalean ere horrela adierazi izan duela. Gobernu taldeak proposamen horri ezezkoa eman diola ikusirik, sinadura bilketa abiatu du Abadiñoko EH Bilduk. Zelaietako hirigintza-berrantolaketa “ondo landutako parte-hartze prozesu batekin garatu” behar litzatekeela uste duten herritarren babesa jasotzeko helburuagaz, gaur, 19:00etan, Txanporta plazan, ipini du EH Bilduk hitzordua.

Berrizko terrazek araudia izango dute oraindik aurrera

Ordutegi eta leku-hartze arauak zehaztu dituzte

BERRIZ J. D.
Tabernariekin hainbat batzar egin ostean, terrazak arautzeko ordenantza eratu du Berrizko Udalak. Ordutegiak, leku-hartze arauak eta lizentziak lortzeko baldintzak zehaztu dituzte.

Terrazak 08:30etik aurrera jarri beharko dira. Neguko denboraldian, 23:00ak arte egon ahalgo dira astelehenetik eguenera, eta 00:00ak arte, barikutik domekara. Udako denboraldian, ordubete gehiagoz egon ahalgo dira. Jaietan eta egun berezietan,

udako ordutegia izateko aukera izango dute.

Gehienez, 12 x 4,80 metroko lekua har dezakete terrazek, eta lizentziak emandakoan, udalak terraza jartzeko mugak finkatuko ditu, lurtean egindako marken bidez. Espaloietan, 1,80 metroko tartea libre uztea adostu dute tabernariekin.

Araudia EAJ eta PSE-EEren botoekin onartu dute. EH Bildu abstenitu egin da, prozesuan parte hartzeko aukerarik ez duela izan argudiatuta.



Orain arte, Berrizen ez dute terrazak jarduerak arautzeko ordenantzarik izan.

Prekarietatearen aurkako kanpaina ipini du martxan ELA sindikatuak

DURANGALDEA M. O.

“Gobernu eta enpresariak krisia amaitu dela esan arren, kaleko jendeak eta langileok badakigu hori ez dela egia. Errealitate laboral eta soziala lazgarria da”. ELA sindikatuko Arrate Elkororen adierazpenak dira horiek. Izan ere, prekarietatearen aurkako kanpaina ipini du martxan sindikatuak, eta antolatze beharra zabaldu gura du beharginen artean.

Elkorok azaldu duenez, “soldata ziztrinak eta enpresen etekinak ikusgai” ipintzea da kanpainaren helburuetako bat. Gainera, “sindikatuaren balioa eta garrantzia azpimarratzea, eta aldarrikapenak indartzea” ere nahi dute.

ELAren ordezkariaren ustez, gaur egungo errealitatea Madril eta Europar Batzarren politikaren ondorio da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzari murrizketa gehiago egitea leporatu dio. 2016rako aurrekontuekin, “Jaurlaritzak saldu gura duen gezurra agerian” geratu da Elkororen iritzian.

Inplanteak jarri

eta hurrengo egunean

PROTESI BERRIAREKIN

mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN. 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15% -rainoko **DESKONTUAK**

WEB GUNEKO TARIFETAN

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

36 HILABETE ARTEKO FINANTZAKETA INTERESIK GABE*

* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketarako banku-finantzaketa kudeatzen dugu.

R.P.S. 44 / 14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

JAEDen tonbola martxan dago, 80.000 euro solidarioaren bila

Aurten, 61 familiari argindarra eta gasa ordaintzen lagundu die JAEDek



JAEDen denda joan zen barikuan zabaldu zuten, eta urtarrilaren 6ra arte egongo da zabalik.

DURANGO Markel Onaindia Joan zen barikutik, martxan dago JAED elkartearen elkartasun tonbola, Andra Marian. Jatekoa edota dirua behar dutenen alde egiten du lan JAEDek, eta dinamika horietarako, herritarren laguntza beharrezkoa du. Gabonen bueltan antolatutako ohi duen tonbolagaz, 80.000 euro solidarioaren bila hasi da elkarteak. Beste behin, herritarren elkartasun jarraitaren erakusle izango da.

JAEDentzat “oso garrantzitsua” da Gabonetako tonbola, Covadonga Noval eta Susana Lorenzo elkarteak kideak kon-

tatu dutenez. 55.000 txartel saldu gura dituzte 1,5 euroren truke, eta, amu lez, 55 sari egongo dira zozketan: Renault Clio bat, Lisboaarako (Portugal) eta Kanariar Irletarako bidaiak, Apple etxeko ordenagailu, mugikor eta tabletak, Play Station 4a... Urtarrilaren 6an egingo dute zozketa, 18:30ean, Andra Marian bertan.

255 familiari jaten ematen Urteko datuen berri ere eman dute JAEDeko kideek, eta ondo baino hobeto islatzen dute herritar askok isilean bizi duten egoera gaitza. Aurten, Durango eta Iurretako 255 familiari eman

diete jatekoa. Guztira, 63.000 kilo elikagai banatu dizkiete 684 laguni. Beste 80 etxetan diruaren beharra eduki dute, eta 112.000 euro ekarpen horretara bideratu dira. Gainera, 61 familiari argindarra eta gasa ordaintzen lagundu die elkarteak. Etxe askotan pobrezia energetikoa bizi dutela jakinda, aurten ipini dute martxan dinamika, eta 14.500 euro erabili dituzte. Ur beroa eta berogailua eduki dituzte, adibidez, JAEDi eskerrak.

Aurreiritzien kontra, laguntza jaso duten familien gehiengoa bertakoa da, JAEDen arabera.

Etorkinekin berbetan, integrazioa errazteko

Udalak ‘Hitz Egidazu’ programa ipini du martxan

DURANGO Markel Onaindia Seigarren urtez, Durangoko Udalak *Hitz Egidazu* izeneko programa ipini du martxan, etorkinei integrazioa errazteko asmoz. Euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera eskainiko diete atzerrikakoei, eta, horretarako, herritar boluntarioen laguntza ezinbestekoa da. Antzerako zaletasunak dituzten bikoteen arteko solasaldien bidez garatuko da dinamika. Programan laguntzeko interesa duenak 94 603 00 00 telefonora deitu ahal du; eskatzen den gutxieneko konpromisoa ordubeteko hamar solasaldi edukitzea da. Dagoeneko, 70 bat bikote osatu dituzte.

Pilar Ríos alkateordeak aurkeztu du programa, eta adierazi du urteotan 415 bikote ibili direla berbetan. 488 ikaslek parte hartu dute, eta 372 boluntariok. Programaren bidez, etorkinen-

Ríos alkateordeak aurkeztu du programa, eta adierazi du urteotan 415 bikote ibili direla

tzat babes sareak sortzen direla azaldu du, eta, gainera, estereotipoak apurtzeko balio duela ere bai.



Ríos, programaren antolatzaile eta partaideekin batera.

Garagardo Jaia antolatu du, biharko, ikasle talde batek

DURANGO M.O. Landako Guneak Garagardo Jaia hartuko du, bihar, ikasle talde batek antolatuta. Eguerdiko 12:30etik aurrera, hiru garagardotako eta saltxitza alemaniarrek dastatzeko aukera emango dute.

Lidargo Berritzailearen eta Ekintzaileen graduaren egaztutako lau lagunak eskutik dator biharko jaia. Jon Iraurgi durangarra da euren taldeko bat, eta azaldu du iluntzean kontzertu bat ere egongo dela, Monk Day talde berriztarrarena, hain zuzen ere. 21:30 inguruan hasiko da emanaldia, eta jaiak goizaldeko 01:30ean edukiko du amaiera.

Landako Gunean sartzeko, euro biko sarrera ordaindu beharko da, baina, trukean, edalontzi bat emango dute.

Etxebizitzaren gaian, “soluzio erreal” baten eske

Sinadurak batuko dituzte alokairu sozialaren alde

DURANGO M.O. Durangon sinadura bilketa hasi dute hainbat gaztek, etxebizitzaren gaian udalari “soluzio erreal bat” eskatzeko. *11 Teilatu* dinamika moduan aurkeztu dute. Udalak alokairu programa bat ipini berri du martxan, baina,

gazteen ustez, baldintzak ez dira egokiak. Gutxieneko errenta 12.000 eurokoa izatea eta alokairuaren prezioa teknikari batek ezartzea ez dute ondo ikusi.

Gazteen iritziz, udalak “soluzio erreal bat” eman beharko lioke arazoari. Hiru eskaera

zehatz plazaratu dituzte: Durangoko 1.576 etxe hutsei alokairu sozialerako irtenbidea ematea, alokairuaren prezioa eskatzailaren baldintza ekonomikoen arabera izatea, eta gutxieneko diru-sarrera ez izatea baldintza bat.

Gaur egun, emantzipazio adina 30 urtera atzeratu dela salatu dute, eta, horren kausak, etxea erosteko dirurik ez edukitzea eta alokairuaren prezioak “altuegiak” izatea direla adierazi dute gazteek.

hitz

artekalea, 14 durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT

12ETAN BERMUTA
Jasone Osoro (2015)

UME ETA GAZTEENTZAT

MUNSTROEK ERE PIXA EGITEN DUTE OHEAN
Pello Anorga & Jokin Mitxelena (2015)

MUSIKA

KEN ZAZPI
PHOENICOPERUS
Ken Zazpi (2015)

MACOBER

Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Sari hau guzizko artean gozatuko dugu.



Pasa den martxoaren 15ean, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak antolatutako Sariak 2015eko onenak erabakitzeko lehiaketa irekiarazteko erabakiak hartu zituen. Lehiaketa honen bidez, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak onenak erabakitzeko erabakiak hartu zituen. Lehiaketa honen bidez, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak onenak erabakitzeko erabakiak hartu zituen.

Sari hau, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak onenak erabakitzeko erabakiak hartu zituen. Lehiaketa honen bidez, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak onenak erabakitzeko erabakiak hartu zituen.

Lehiaketa honen bidez, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak onenak erabakitzeko erabakiak hartu zituen. Lehiaketa honen bidez, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak onenak erabakitzeko erabakiak hartu zituen.


Sari hau, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak onenak erabakitzeko erabakiak hartu zituen. Lehiaketa honen bidez, **anboto** Ki, Giteko Departamentuak onenak erabakitzeko erabakiak hartu zituen.



ABENDUKO SARIAK



FORUM SPORT. PULSOMETROA
Polar FT1 modelo eta uhala.
Iragazgaitza.



LAPIKO JATETXEA. MENUAK
2 pertsonentzako menu berezia
igande eguerdirako.



SAN AGUSTIN. TXARTELAK
San Agustin bazkide txartel bat
eta San Agustin txikitxartela.



HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA DISKOA
Andoni Urzelaiaren "Karanbola
toxikoak" liburua eta Balerdi Balerdiren
"Hegoko lautadaren ertzetik" diskoa.



SALTSAN. EGVEN SALTSAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa,
2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo,
2 ardorekin lagunduta.



ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

anboto
komunikabideak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org

@anboto

Anboto
Komunikabideak

Tel.: 946 816 558

Txakurrak solte ibiltzeko 18 gune izendatu ditu udalak

Hamabi gunetan ez da ordutegi mugarik egongo, baina beste sei etan bai



Durandog elkarteko zenbait kide, Ibaizabal auzune inguruko parkean.

DURANGO M. O.

Txakurrak solte ibiltzeko hamazortzi gune izendatu ditu udalak. Ordutegi muga barik hamabi berdegune egongo dira erabilgarri, eta mugatuta sei. Horrela, Durandog elkartearen bidez hainbat txakur-jabek egoniko eskaerak argia ikusiko du.

Muga bako hamabi guneak hurrengo eremuetan egongo dira: Astolabidea; Zuhatzolako parkea; Tabiran pipican-aren

ingurua; hilerriaren ingurua; Muruetatorreko lursail bat; Ambrosio Meabe kalean erreka albo; Zumar kaleko ekialdeko parkea; Etkezurioste; San Roken saihebidaren eremua; Fauste-bekoako parterre bi; Errotaritzuenako berdegunea; eta Aramotzen saihebidako zonaldea.

Gainerako sei guneak, ekainaren 1etik irailaren 30erako epean, 20:00etatik hurrengo

eguneko 11:00etara bitartean erabili ahaliko dira, eta urriaren 1etik maiatzaren 31ra, 19:00etatik hurrengo eguneko 13:00etara bitartean. Erretentxun, Ibaizabal, Elkartegian, Kastejon parkean, San Inazio auzunean eta Intxaurren egongo dira gune mugatu horiek.

Udalak informatu duenez, arriskutsu lez izendatutako txakurrak hamazortzi gune horietan ere ezingo dira solte ibili.

Urigoitiaren oroimen ekitaldia, domekan

Udaletxe pareko plazan izango da, 13:30ean

OTXANDIO J.Derteano

Luzia Urigoitia gogoratzeko oroimen ekitaldia domeka honetan egingo dute. 13:30ean jarri dute hitzordua, udaletxe pareko plazan.

Ekitaldia hasteko, testu bat irakurriko dute. Testu horrek gaur egun udalean dauden zinegotzi denen babesa du, eta baita 1987tik (Urigoitia hil zuten urtea) honako udalbatzarrrak osatu izan dituzten beste hainbat zinegotzirena ere. Izan ere, udalak, azken 28 urteetan, Otxandion zinegotzi izandako lagunak batzar-erronda batera gonbidatu zituen orain aste batzuk; gonbidapena onartu zutenekin alderdika batu ziren,

eta domekan irakurriko duten testuak batzarretara bildu zirenen adostasuna du.

Ondoren, testu hori Urigoitiaren senitartekoei emango diete adostasuna erakutsi duten zinegotzi denen sinadurarekin.

Aurreskua eta lore eskaintza izango dira oroimen ekitaldiko beste osagaietako bi

Aurreskuarekin eta lore eskaintzarekin amaituko dute oroimen ekitaldia.

Otxandio Udalak ekitaldiaren gaineko planteamendua eta bertan egoteko gonbidapena helarazi dizkio Eusko Jaurlaritzari, eta ekitaldiarekiko adostasuna azaltzeko eskatu dio: Jaurlaritzak gaia aztertu eta erantzun zuzena jakinarazi die.


Hamar urteren ostean, gora egin du Ondasun Higiezin Zergak

OTXANDIO J.Derteano

Igoera-jaitiera baremoak Al-nduak mugatzen dituen hiru zerga onartu zituzten joan zen eguneko udalbatzarrean, aho batez. Udalak berak erabakitzen dituen tasak eta zergak datorren hileko udalbatzarrean erabakiko dituzte. Denbora irabazteko erabaki dute horrela: "Ideia orokorrak zehazteko, denbora behar dugu", azaldu zuen Armendariz alkateak.

Ondasun Higiezin gainerako Zerga 0,1 igotzea erabaki zuten: 0,8tik 0,9ra. Azken hamar urteetan igo ez den zerga izan da, eta tamaina antzerakoa duten Bizkaiko gainerako herrien azpitik egon da, azaldu zuten. Gainerako zerga eta tasetan gizarte politikak aplikatuz orekatu gura dute igoera.

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gainerako Zerga zaldi fiskalik gehien dituztenei igo diete. Kalkulatu dutenez, auto jabeen %90ek (500 bat auto) ez du igoerarik jasango.



Andoni Agirrebeitia alkatea, Beñat Sarasola eta Labayruko zuzendari Adolfo Arejita eguazteneko aurkezpenean.

Euskal literaturaren azterketa berri bi, Onaindia bekari esker

Beñat Sarasolaren ‘Baina belaunaldia: Ustela, Pott, Oh! Euzkadi’ argitaratu dute

ZORNOTZA J. D.

Zornotzako Udalaren eta Labayru Fundazioaren arteko lankidetzari esker, Santiago Onaindia bekak Euskal literaturaren alorreko ikerketa lanak sustatzen ditu. Azken beka biak jaso dituzten Beñat Sarasolak eta Gorka Mercerok euren ikerketen berri eman dute, asteen.

Beñat Sarasolaren (1984, Donostia) *Baina belaunaldia: Ustela, Pott, Oh! Euzkadi* liburua argitaratu berri dute. Sarasolak “euskal literaturaren gaur egungo panorama” eta azken hiru hamarkadetako ibilbidea ulertzeko “ernamuina” diren hiru aldizkari aztertu ditu: *Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi*. Aldizkari horiek hiru sortzaileri lotuta daude nagusiki: Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre eta Ramon Saizarbitoria.

Asteen aurkeztu duten liburuak zati bi ditu. Lehenengoan, aldizkariak aztertu, eta bere testuinguru soziopolitikoan kokatu ditu. Bigarren zatia teoriakoagoa da, eta ibilbide horretan azaldu diren hainbat gai bost puntutan batu ditu.

Puntu horietako batean literaturaren autonomia aztertzen du: “Izpiritu kritikoa funtsezkoa da literatura autonomia egon dadin”. Ideia horretatik atera du liburuko izenburua: ‘Baina belaunaldia’ Oh Euzkadin agertutakoa terminoa da: “Auzi sozial, politikoa zein literario denei punta ateratzen zieten fama zuten, seguruenik ondo merezia, eta hori hiru aldizkarietarako aplikagarria dela uste dut”.

Merceroren ikerketa gaia
‘Mundu-ikuskerak euskal na-

rratiba garaikidean: modernitatearen krisitik postidentitatearen promesera’. Hori da Gorka Merceroren ikerketarako gaia. Euskal narratiba garaikidearen ikuspegi orokorra eman gura du irizpide moduan, mundu ikuskera erabilita. Euskal narratiban dagoen eklektizismoa euskal nobelagileek darabiltzaten mundu ikuskera desberdinetatik dator, Merceroren ustez.

Mundu ikuskera horiek definitzerako orduan, “modernitatearen kontzeptuaren inguruan sortu diren eztabaidei begiratu ko diet, eta horiekin batera gaur egun nahiko familiar bihurtu zaizkigun post-ismo denei: post-modernitatea, postestrukturalismoa, postnazionalismoa...”. Horiek denek modernitatearen pentsamenduari “alternatibak” eskaintzen dizkiela dio.

‘Elkartasunetik konpromisora’ aldarriagaz Libre Eguna antolatu dute, zapatuan

Goizean herri lasterketa izango da, eta iluntzean DJ Elepuntoren musika

ZORNOTZA J. D.

Euskal Herriko 107 Herriko taberna konfiskatzeko epaiaren aurrean, Libre Eguna antolatu dute, bihar, Zornotzan. Izan ere, epaian sartutako Herrikoetako bat Zornotzakoa da.

‘Elkartasunetik konpromisora’ lelopean, egun osorako egitaraua antolatu dute zapatuan. Goizeko 11:30ean lasterketa herrikoian parte hartzera gonbidatu dituzte zornotzarrik. 11:00etan Zelaieta parkean egoteko eskatu diete parte hartu

gura dutenei. Gaztetxei begirako jolasak ere egongo dira, 12:00etatik aurrera.

13:30ean, ahalik jende gehien batu gura dute Zelaieta frontoian, herri argazkia ateratzeko.

Eguerdian, herri argazkia aterako dute Zelaieta frontoian, eta, ondoren, bazkaritara batuko dira

Segidan, 14:30 inguruan, bazkaritara batuko dira. Txartelak Herrikoan, Amistad-en eta Saltxan eskuratu daitezke, 15 euroan. Langabeentzat 10 euro izango da prezioa.

Bazkalostea kantaldi batekin girotuko dute, eta, 18:00etan, kalejiran irtengo dira herrian zehar.

21:00etatik aurrera, Herriko tabernan jarraituko du jaiak, pintxoekin, txupito bereziekin eta DJ Elepuntoren musikarekin.

Barraskilorek herritarrei irekitako jaia antolatu du

Bihar, bigarren urteurrena ospatuko dute

ATXONDO J. Derteano

Urte bi joan dira Barraskin etxebizitzak okupatu zituztenetik Barraskilore proiektuari hasiera emanez. Urteurrena ospatzeko, egun osoko jaia prestatu dute, zapatuan. Ekitaldietan parte hartu, eta Barraskiloreren proiektua bertatik bertara ezagutzeko gonbita egin diete herritarrei.

11:00etan umeen jolasak prestatu dituzte, Apatako plazan, Marixurrike aisialdi taldearen laguntzagaz. Ondoren, 13:30ean, trikipoteoan ibiliko dira herrian zehar, Alda eta Andaren musikak lagunduta. Bazkalorduan, 14:30 inguruan,

Barraskiloren bertan batzeko gonbita luzatu dute. Marmitakoa izango da plater nagusia, baina nahi duenak aukera beganoa ere izango du. Batutako denek argazki bat aterako dute.

Bazkalostea pobreziaren inguruko poesia musikatu erreztaldia girotuko du, 17:00etatik aurrera. 19:30ean, berriro herrigunera zabalduko dute jai-giroa bigarren trikipoteo batekin. 22:00etan, musika kontzertu bi antolatu dituzte, Gaztetxean: Baserriko Oilaskuek Labin eta Bajo Presion. Ostein, DJ Abaunzaren musikak emango dio jarraipena gauari. Mozortuta joateko deia egin dute.



Barraskiko etxebizitzetan jarri zuten martxan Barraskilore proiektua, 2013an.

Sare sozialei eta eraso sexistei buruzko berbaldia

MALLABIA J.Guenetxea

Azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi aurreikusi dituzte Mallabian. Gaur, 20:00etan, Virginia Imaz klownak *Encantadas* ikuskitzuna taularatuko du, Kontzejuzarrean. Azaroaren 25ean bertan, Berdintasun Kontseiluak elkarretaratzea deitu du Frontoiko aldapan, 12:00etarako. 19:00etan, berriz, Urko Fernandez Pantallas Amigas elkarteak kideak sare sozialen eta eraso sexisten inguruan jardungo du, Kontzejuzarrean. Abenduaren 2an, berriz, Veronica Rodriguez psikologoak emakumeenganako indarkeriaz jardungo du, baita biktimek jasaten duten dependetzia emozionalaz ere, Kontzejuzarrean, 20:00etan.

Abesbatzen kontzertua, Santa Zezilia gogoratzuz

MALLABIA J.G.

Herriko hiru abesbatzek kontzertua eskainiko dute, bihar, 20:00etan, Mallabiko elizan. Lagunartean umeen abesbatzako kideekin batera Mendibil eta Jasokunde abesbatzetako abeslariak izango dira, Santa Zezilia Egunaren harira, musika ukitua emango diotenak. Aurten, gainera, Trikitixa Eskolako kideek ere kontzertuan parte hartuko dute.

Kontzertuaren ondoren, ohiturari eutsiz, Orraitio euskara elkarteak Gaztañerre antolatuko du.

Kontzertuaren ondoren, ohiturari eutsiz, Orraitio euskara elkarteak Gaztañerre antolatuko du

Termitek udal eraikinean eragin duten kaltea konpontzen dabilta

Udaletxearen atzealdeko etxebizitza eta gelak dira gunerik kaltetuenak



Udaletxea dagoen eraikinaren atzealdean aurkitu zuten termiten habia, eta han eragin ditu kalterik handienak.

IZURTZA Joseba Derteano Udaletxea dagoen eraikinak termitak ditu, eta arazo horri aurre egiten dabilta, kaltetutako tokietan termiten kontrako tratamendua emanez eta egiturak berriztatuz eta indartuz. Eraikinaren atzealdean aurkitu da termiten habia, eta, ondorioz, gune hartan eragin ditu kalterik gehien: tabernako sukaldean eta etxebizitza bietan.

Tabernan eta sukaldean eman dute dagoeneko tratamendua, eta berdin egingo dute etxebizitza bietan. Gaur egun, arazoa konpondu arte, ez da inor bizi etxebizitzetan. Oro har, eraikin osoan emango dute tratamendua. Ondoren, kaltetutako egiturak konponduko dituzte. Habe batzuk aldatu eta beste batzuk indartu egingo dituzte.

Joan zen astean, kreditu aldaketa batzuk onartu zituzten udalbatzarrean hainbat proiekturako. Zati bat, 130.000 euro, termiten eragindako kalteak konpontzeko erabiliko dute.

Negulekuetan izena eman gura dutenentzako deialdia

MAÑARIA M.O.

Mañariko Udalak umeentzako negulekuak antolatu ditu, eta deialdia egin du izena eman gura dutenentzat. Hilaren 27a baino lehen eman beharko dute izena, udaletxean zein liburutegian.

Hilaren 27a baino lehen eman beharko dute izena, udaletxean zein liburutegian

tegian. Abenduaren 21, 22, 23, 24, 28, 29, 30 eta 31n izango dira negulekuak, eta hainbat tailer burutuko dituzte. Lau eguneko prezioa 60 eurokoa da, eta zortzi eguneko 100 eurokoa.

80 bat kaltetu, AHTaren aktak sinatzera deituta

Buruaga alkatea ez da agertuko aktak sinatzera

ELORRIO Markel Onaindia Datorren astelehenetik aurrera, 80 bat herritar AHTaren desjabetza aktak sinatzera deituta daude, eta, kaltetuen artean, udala ere egongo da. Elorrio-Elorrio tarteko lurren desjabetza egingo dute, bertan obretan sartu aurreko prozedura lez.

Idoia Buruaga alkateak azaldu duenez, ez da agertuko aktak sinatzera. Uko egiteko arrazoia legearen arabera izango da; akta, desjabetuko den lurrean bertan sinatu behar dela esaten du legeak. Urri amaieran ere aktak sinatzeko deialdia egon zen, eta udalak jarrera bera eduki zuen.

EH Bilduko gobernu taldeak adierazi du ez duela "erraztasunik eskainiko" prozedura horietan. Gainera, Abiadura

Handiko Trenaren proiektua "inposaketa bidez" aurrera eramana izana salatu du Buruaga alkateak.

Zati bakarra eraikita

Elorrioren lau zati ditu AHTaren ibilbideak, eta, oraindik, bakarra dago eraikita. Obren "jarraipen zorrotza egin" eta kaltetuei laguntza tekniko zein juridikoa eskaintzeko asmoz, udalak batzorde berezi bat sortuko du.

Abiadura Handiko Trenaren proiektua "inposaketa bidez" aurrera eramana izana salatu du alkateak

San Andresak hasteko, nekazaritza azoka, domekan

ZALDIBAR I. E.

Euskal Herria etorbidea base-rikiko produktuz beteko duen Neguko Azoka burutuko dute, domekan, 11:00etatik aurrera. Goiz guztian zehar, Durangaldeko, Lea-Artibaiko eta Busturialdeko nekazariak landutako ortuari eta produktuak dastatu eta erosteko aukera izango da Zaldibarren: barazkiak, frutak, txakolina, ogia, gazta, ezta, etab. Azokako produktu sortarik onenak saritzeko, ohi bezala, lehiaketa egingo dute, azaroaren 22an. Domeka goizean ere, 13:30ak arte, San Andres Arku tiro txapelketa jokatu dute. Bi ekintza horiekin hasiko dituzte San Andres jaiak. Hain zuzen ere, Zaldibar Arku Taldekoek jaurtiko dute, 27an, jaien hasierako txaplogua, udaletxeko balkoitik.

Bertso afaria, bihar, Ugartetxea eta Enbeitagaz

GARAI M. O.

Bihar iluntzean bertso afaria egingo dute Garain, udalak eta Trumoitte kultur elkarteak antolatuta, eta Beñat Ugartetxea eta Onintza Enbeita bertsolariak izango dira protagonista.

21:30ean batuko dira bertsozaleak Otea-Loran elkartean, eta otordua egingo dute. Gero, Mallabiko Beñat Ugartetxeak eta Muxikako Onintza Enbeitak girotuko dute gaua.

Herriko Taberna

Bestalde, udalak informatu du Herriko Tabernaren hiru urterako adjudikazio lehiaketa martxan dagoela. Udaletxean aurkeztu behar da eskabidea.

Elkartasun merkatu txikirako materiala batzen hasiko dira

IURRETA A. B.

Hirugarren urtez antolatuko dute, aurtun, Iurretan, elkartasun merkatu txikia. Abenduan izango da aurtun ere, eta, asteen jasoko dute materiala, bertan saltzeko. Azaroaren 23tik aben-

duaren 4ra bitartean batuko dituzte merkatuan salgai jartzeko jostailuak, poltsak, arropak, bitxiak...

Ibarretxe kultur etxean

Elkartasun merkatu txikian lagundu gura duten herritarrek Ibarretxe kultur etxera eroan ditzakete etxean gordeta dituzten objektuak. Salmentekin batutako dirua JAEDera bideratu izan du, aurreko urteetan, Anderebide elkarteak.

IREKIERA PROMOZIOA

SCHMIDT

Cocinas y Muebles de Hogar





Murueta auzoa, 17B lokala
Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO
Tel.: 946 526 195
info@schmidt-abadiano.com

Euskaraz mingainari eragin guran, 200 lagun bildu dira Mintzodromoan

Berbalagunen lekukoa hartuz, euskaraz mintzatzeko ekimenagaz bat egin zuten



Bigarrenenez antolatu dute Mintzodromoa, Plateruenean.

> EUSKARA Jone Guenetxea Irakurriz ikasten den moduan irakurtzen, berbetan ikasten da euskaraz. Praktikatu, alegia. Ildo horretatik, euskara ikasten diharduten euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak batuz, Mintzodromoa antolatu zuten, atzo, Durangoko Plateruena kafe antzokian. Goizez eta arratsalde, saio bikoitza proposatu zuten antolatzaileek. Kafesneak eta pastek gozotu zuten mahaiaren bueltan eseritakoen solasaldia.

San Antonio Santa Rita, Kurutziaga eta Ibaizabal ikastetxeetako gazteez gainera, AEK eta Udal Euskaltegiko ikasleak batu ziren, goizean, ekimenara. Guztira, 122 lagun elkartu ziren mingainari euskaraz eragiteko gogoz.

Gazteak urduri, non eseriko, eta euskaltegietako ikasleak ere gogotsu ibili ziren, aulki bila. Laukote horietako baten solasaldian infiltratu zen ANBOTO. Isabel Perez AEK-ko ikaslea, Julen Bengoa Udal Euskaltegi-

ko ikaslea, Nerea Narbaiza San Antonio Santa Ritako 4. DBH-ko irakaslea, eta Jon Barbero eta Gaizka Bengoa Kurutziaga ikastolako ikasleak bildu ziren lehenengo errondako talde batean. Berbetan hasi aurretik, aurkezpenen txanda izan zen. Kurutziagako ikasleak eta San Antonio Santa Ritako irakaslea euskaldun zaharrak dira. Isabel, berriz, AEKn euskara ikasten dabil. Berbalagunera joateko astirik barik dabilela aitortu zuen. Julen, berriz, euskaldun

zaharra da, baina EGA titulua ateratzeko ikasten dihardu, Udal Euskaltegian. Talde anitza batu zen, beraz, euskaraz hitz egiteko gertu.

Antolatzaileek proposatutako lehenengo gaia musikari lotutakoa izan zen. *Guztiaren errua reggaetoiak dauka* izan zen esku orrian azaltzen zen lehenengo esaldia. Taldekideek berehala ekin zioten musika mota ezberdinei buruz hitz egiteari. “Momentu bakoitzean, norberaren egoeraren arabera, gorputzak musika bat edo beste

Goizez eta arratsalde, saio bikoitza proposatu zuten antolatzaileek Mintzodromoan

eskatzen dizu”, arrazoitu zuen Julenek. Ikasleek ere, musika gogoko dutela azaldu zuten, talde zehatzik barik, euskal musika zein atzerrikoa. Reggaetoiak, berriz, ez ei dute larregi ezagutzen. Nereak, berriz, irakasle senagaz, solasaldia bideratzeko galderak proposatu zituen. Halako batean, txirrinak jo, eta beste solaskide batzuk ezagutzeko txanda heldu zen. Txandatzearen bidez, beste mahai batean esertzeko unea zen. Horixe baita Berbalagunen oinarria. Euskaraz hitz egiteko aukera eskainiko dizun jende berria ezagutzea.

EUSKARAK
365
EGUN

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSE-EE



Aste beltza

Aste beltza izan dugu, alde batetik, Parisko atentatu terroristengatik, eta, bestetik, 7 egunean 7 emakume hil direlako, beren bikotekideek erailak, aurreko asteburuan Madrilgo kaleetan sekula izan den manifestazio feministarik jendetsuena izan ondoren. Paradoxikoa, zenbat eta manifestazio gehiago egin, orduan eta sarriago hiltzen gaituzte. Paradoxikoa ere, manifestazio jendetsu horrek hain leku gutxi edukitzea hedabideetan.

Leku gutxi eta kalitate ezin txarragoa. Hilketa matxista baten ondoren -hain zuzen, Carmenen hilketaren ondoren-, hedabide batek izenburu hau jarri zion albisteari: “Senar-emazteen auzoek eta lagunek diotenez, bikote arrunta zen, jende ona”. Eta albiste berean, adierazpen hauek irakurri ahal izan genituen: “Zerbait pasatuko zitzaien” eta “ez du tratu txarren emailaren soslai”.

Albiste horrek kalte handia egiten dio genero-indarkeriaren kontrako borrokari. Errealitatea itxuraldatzea da egunero sare sozialetako adierazpenetan eta izenburuetan ikusten ditugun iruzkinek duten helburu bakarra. Gizarte matxista eta inguruan dugun desberdintasuna sustatu, eta hiltzailea babestu, zaindu eta zuritzen dute.

Matxismoa da gure gizartearen izurria, desberdintasunean oinarritzen delako; eta hedabideek nola edo hala moztaratu behar dute, normaltasunaren itxura izan dezan.

Hedabideek ezinbestez eta berehala aldatu behar dute jarri hori, eta eragile aktiboak izan behar dute, desberdintasunari eta matxismoari aurre egiteko.

DURANGALDEA ASTEON

Legañoko aurkikuntzen inguruko bisita gidatua

BERRIZ > Legañoko San Pedroko indusketetan topatu dutenaren inguruko azalpenak emango dituzte arkeologoek, azaroaren 29ko bisita gidatuetan (11:00etan euskaraz, eta 12:30etan gaztelaniaz). Plaza mugatuak egongo dira, eta, horregatik, azaroaren 27 orduko, Berrizko kultur etxean izena eman beharra dago.

Boluntarioei deia, janari bilketagaz laguntzeko

DURANGALDEA > Azaroaren 27an eta 28an Abadiñoko Maxi Eroskian egingo den janari bilketan lagunduko duten boluntario gazte eta helduen bila dabilta. Abadiñoko Udalak, esaterako, kanpaina horren garrantzia azpimarratu du, eta 94 621 50 64 telefonora deituta izena ematera animatu ditu Abadiñoko herritarrek.

Argazki lehiaketaren sari banaketa, Parran

ELORRIO > Azaroaren 25ean egingo dute, Elorrioko Parra tabernan antolatu duten III. argazki lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. Eguaztenean, 19:30ean, aurkeztutako lanen emanaldia egingo dute lehenengo, sariak emango dituzte ondoren, eta luntxa eskainiko diete parte-hartzaile eta argazkizaleei, amaitzeko.

IRITZIA

Sinadura bilketa

Bi aste igaro dira Abadiñoko udal gobernuak Zelaieta berrantolatzeko proposamena bando bidez zabaldu zuela.

Gobernu taldeak 30 eguneko epea eman di-zue herritarroi zuen ekarpenak egiteko, baina, plano bat erakustez gain, ez dizue inolako azalpenik emon. Ez dute dirurik erabili nahi zuori zalantzak argitu, eta zuen ideiak garatzea erraztuko duten bitartekoak jartzeko. 20 egun pasa ondoren, ez da herritarron ekarpenik egon, eta horrek oso argi uzten du bitarteko horiek jartzearen beharra.

Aurkeztu duten planoan, ez dira jasotzen herritarrek aurreko fasean ataratako ondorioetako asko. Gainera, proiektuarekin interesa duten gainontzeko herritarrei ez zaie parte hartzeko aukerarik eman.

Hori gutxi balitz, azken erabakia zinegotzien esku bakarrik uztea proposatzen du udalak. EH Bildutik behin eta berriz eskatu dugu erabakia herritarron esku uztea.

Zure sinadurarekin ondorengo puntuak bete ditzan eskatuko diogu udalari:

1. Zelaietako berrantolaketaren zehaztasun fasea parte hartze bidez garatzea, era

honetako prozesuak dinamizatzen adituak diren teknikariekin.

2. Zehaztasunen fasean herritarrek lantutakoa jaso eta teknikariek proposamen ezberdinak garatzea

3. Garatutako proposamenen artean, herritarrek hautatzeko eskubidea izan dezatela.

Sinadurak biltzeko lehen datak, azaroaren 20a, ostirala, 19:00-20:30 artean, eta azaroaren 22a, igandea, 12:00-13:30 artean izango dira, Txanporta plazan. Honez gain, egunero Soloko dendan emateko aukera izango duzue.

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta •
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Esti Redondo | Etxalde Emakumeak eta EHNE-Bizkaiko kidea | Zaldibar, 1976

“Andra baserritarren presentzia gehitu dute prozesu agroekologikoek”

Urrian onartutako Emakume Baserritarren Estatutua nola zehaztuko den ikusteko dagoela uste du



> **BERBAZ** Aitziber Basauri
Industrializazioak ikusezin bihurtutako emakume baserri-
tarra berriro azalarazi du elika-
dura burujabetzaren aldeko
borrokak. Era berean, Legebilt-
zarrak onartutako Emakume
Baserritarren Estatutua au-
rrerapauso bat da emakumeon
lana ikustarazte aldera.

Baserri munduan izan duen gar-
rantzia galdu du emakumeak?
Garrantzia izaten jarraitu du,
hor dago. Kontua da, zenbat eta
nola baloratzen dugun egindako
lana, bai baserrian bai kalean.

Euskal Herriko baserri eredia
emakumearena izan da. Hala
ere, gero eta latzagoa da ema-
kume baserritarren egoera.
Historikoki, emakumeak egin
dituen lanak zerikusi gehia-
go izan dute antzinako eredu
horregaz. Baina, 50eko hamar-
kadan, eta, batez ere, 70ekoan,
industrializazio eta intentsifi-
kazio prozesuekin batera, ema-
kumearen eredu hori baztertu
egin da (dibertsifikatua; gauzak
txikian egitekoa; familia elika-
tzeko, eta hortik aurrera komu-
nitatea...); andra baserritar asko

“
*Zenbat eta hektarea
gehiago izan, orduan
eta laguntza gehiago
ematen dira*”

desagertu dira, estatistiketatik
behintzat.

Industrializazioak ikusezin egin
du emakume baserritarra?
Landa eremuari garrantzia
kendu zion industrializazioak;
elikadura produzitzeari garrant-
zia ukatu zion. Baserri batzuk
handitu, industrializatu eta
espezializatu egin ziren, eta,
publikoki, behintzat, gizonak
hartu zuen ardura guztia —ti-
tularitatea hartu du, gizarte
segurantzaren kotizatu du eta bi-
zitza publikoan parte hartu du,
baserritar edo produktore lez—,
emakumea ezkutuan geratu da,
baserrian egon arren eta ordu
kopuru berdina lan egin arren.
Ikusezin egin ditu baita, gizona
lanera kalera irtenda, baserria-
ren kargu egin eta jarduera so-
zial eta ekonomikoa mantendu
duten emakumeak ere. Izan ere,
laguntzak jasotzeko, jarduera

publikoa egiteko, familiako di-
ru-sarreraren erdia baino gehiago
baserritik etorri beharko litzate-
ke; eta, oso zaila da gizonak ka-
lean irabazitakoa baino soldata
handiagoa ateratzea baserritik.
Emakumeon lana eta garrantzia
ez da aintzat hartzen, ez esta-
tistika ekonomikoetan ez beste
hainbat esparrutan.

Bestelako nekazaritza ereduak
aldatu dute joera hori, ezta?
Abiatutako prozesu agroekolo-
gikoek emakume baserritarren
presentzia handitu dute. Eli-
kadura burujabetzaren aldeko
borroka edo prozesu horretan,
berriz azaldu da emakumea:
tradiziozko jakituria, emaku-
mearen papera, eta honek tradi-
zionalki izandako egiteko erak
baloratzen dira. Horretan saia-
tzen gara, aitortza hori egiten.

Europako diru-laguntzek bere-
ziki baztertzen dute eredu hori.
Europako nekazaritza politika
bateratua (PAC) eredu intentsi-
boaren aldekoa da, nabarmen.
Zenbat eta hektarea gehiago
izan, orduan eta laguntza gehia-
go ematen dira, batzuetan. Ba-
daude lurra landu ez arren,

“
*Andra baserritarren
lana ikustarazte
aldera, aurrerapauso
bat da estatutua*”

hektarea piloa dituzten per-
sona edo entitateak Europako
Batasunetik laguntzak jasotzen
dituztenak. Zenbakiei begira-
tuta, laguntza jasotzen dutenen
%25 dira emakumeak, eta %75
gizonak; halaber, 1.000 eurotik
beherako laguntzak jaso dituz-
tenetik %33 dira andrak, eta %7
baino ez dira 100.000 eurotik go-
rako laguntzak jaso dituztenak.

Etxaldek gai feminista baserri
mundura eroan gura du.
Oinarrian, baserritarrak di-
tuen elikadura burujabetza-
ren aldeko elkarrekin da. Horren
baitan, estrategikoki garrant-
zitsua deritzogu feminismo-
tik eraikitzea, ikuspegi hori
izatea. Etxalde feminismoz ku-
tsatzeko, eta, feminismo urba-
noagoa edo landa eremuz eta
elikadura burujabetzaz kutxa-
tzeko hasi ginen batzen elkarre-
kin andrak.

Ekonomia feminista eta elika-
dura burujabetza dituzue, be-
raz, lan ildoak?

Egungo jendartean, dirua da
bizitzaren oinarri edo zentroa.
Ekonomia feministak, aldiz, bi-
zia jartzen du zentro horretan,
gure premia, hartu-eman, eta,
natura zein elikaduragaz ditu-
gun harremanak berregaituz.
Hortxe egiten du bat ekonomia
feministak elikadura burujabe-
tzagaz —herriek elikaduraren
esparru guztietan erabakitze-
ko eskubidea izatea eta elikadura
gure behar nagusietako bat iza-
tea esan gura du horrek—, eta,
elkarri lagundu diezaiokete.
Elikadura burujabetza horren
zutabe garrantzitsua da neka-
zaritza iraunkorra.

Legebiltzarrak Emakume Ba-
serritarren Estatutua onartu du
urrian. Nola baloratzen duzu?

EHNEk aurkeztutako hainbat
alegazio jaso ditu, eta aurrera-
pauso bat da emakume baserri-
tarren lana ikustarazte aldera.
Hala ere, estatutu orokor bat
dela uste dugu, lehenengo pauso
bat eman dela. Ikusteko dago,
oraindik, nolako gogo politikoa
dagoen estatutu hori benetan
aplikatzeko, edo horrelako poli-
tikak aurrera eroateko. Marko
orokor legez ondo ikusten dugu,
baina, hori guztia nola zehaztu-
ko den ikusi behar da oraindik.

Produktua eraldatzea eta mer-
katuratzea ere nekazaritza lan
moduan jasotzen du, ezta?

Bai. Horretan lan egindako or-
duak emakume baserritarren
lan moduan jasotzen dira, bai.
Kontuan hartuta horrexek di-
rela emakume baserritarrek
historikoki egin dituzten lane-
tariko batzuk, aurrerapauso
moduan ikusten dugu.

Elikadura burujabetzan eragin-
go dun horrek?

Ikusteko dago nola zehaztuko
den dena, baina, ematen du au-
kera zabaltzen duela emakume
batzuek ustiapenaren gaineko
titulartasuna lortzeko; andrek
orain arte egin duten lan horren
aintzatespen bat emateko bidea
ere bada.

Gizarte segurantzaren kotizatzea
eta titular lez agertzea bultzat-
zen ere lagunduko du.

Emakume baserritar gutxi-
kotizatzen dute. Nekazaritza jar-
dueran irabazitakoa ikusita,
normalean, gizonak eman du al-
ta autonomo lez, emakumeak ez.
Bidea zabaltzeko da apur bat, an-
dra gehiago horretan sartzeko.



Zortzi guneen ordezkariak agerraldia egin zuten Nerea Mujika Gerediaga Elkartearen presidenteari, eguaztenean, Plateruenean.

“Inoizko kultur ekitaldi kopururik handiena izango da 50. Azokan: 250 baino gehiago”

Abenduaren 4tik 8ra, herriko zortzi gune kultur proposamen anitzez beteko ditu Durangoko 50. Azokak

> AZOKA Itsaso Esteban

Urte osoan Durangoko Azokara kulturaren lagin ahalik eta zabalena ekartzeko lan egin duten Ahotsenea, Saguganbara, Plateruena, Irudienea, Szenatokia, Kabi@, eta Azoka Telebista izan ziren, Nerea Mujika Gerediagako presidenteari, aurtengo egitarauaren aurkezpen prentsaurrekoan. Hain zuzen ere, eragile horien lana eskertuz hasi zen Nerea Mujika. “Herri

ekimena eta elkarlana” dela Durangoko Azokaren zutabea azpimarratu zuen Mujikak, eta “gero eta eragile eta ideia gehiago, eta elkarlan handiagoa” nabari dela Durangoko Azokan.

“Iazko datu baikorrak hobetuz”, euskal diskogintza eta literaturako 350 ekoizpen berri (iaz baino 4 gehiago) aurkeztuko dituzte Durangoko Azokan. Diziiplina desberdinetako kultur ekitaldi andana izango dela ere

azaldu zuen Gerediagako presidenteari: “Inoizko kultur ekitaldi kopururik handiena izango da: 250 baino gehiago”.

Mujikak zehaztu zuen, 750.000 euroko aurrekontuagaz antolatu duela Gerediagak Azokaren 50. urteurrenako edizio berezia (410.000 euroko dirulaguntza publikoagaz). Erakunde publikoen konpromisoa eta “demon ahalegina” azpimarratu zituen Gerediagako presidenteari.

Azoka, gunez gune

Iaz bezala, Areto Nagusia izango da Durangoko Azokako gogoetarako espazioa. Euskal kulturaren etorkizunari begiratzeko, mahai-inguruak eta solasaldiak egingo dituzte, kultur eragileekin eta industriako kideekin. Andoni Egaña, Itxaro Borda, Ruper Ordorika, edo Jose Mari Agirretxe “Porrotx” gonbidatuko dituzte, adibidez, gogoetak partekatzerako.

Azken urteetan bezala, San Agustin antzokia Szenatokia Gunea izango da Azokako egunetan. Zirkua protagonismo handia izango du, antzerkiari buruzko mahai-inguruak antolatuko dituzte, eta, zelan ez, euskal antzerkigileen lanak ikusteko aukera ere eskainiko dute.

Familientzako proposamen zabalagaz zabalduko ditu, aurtengo ere, Berbaro Elkarteak Saguganbara Gunearen atea: 16 tailer eta 15 ipuin kontalaritza saio izango dira gune horretan.

Zugaza zineman egongo da, bestalde, euskal zinemagintzari dedikaturiko Irudienea Gunea. Egitarau zabala prestatu du Topaguneak: filmak emango dituzte, solasaldiak izango dira zinegileekin, eta Kameratoia film laburren lehiaketa ere bertatik antolatuko dute.

Disko eta liburu berrien aurkezpenen gunean, Ahotsenean, 125 zuzeneko musika emanaldi eta aurkezpen literario izango dira Azokako egunetan.

Ahotseneakoen osagarri, Durangoko Azokako kontzertu handien kokagune ere izango da Plateruena kafe antzokia. Iheskide, Korrontzi, Olatz Zugazti edota Esne Beltza igaroko dira, Plateruenean oholtzatik.

Kokagunean berritasunagaz dator aurtengo Kabia, Digitalen Plaza: kupula itxurako espazio batean elkartuko dira, euskara eta teknologia ardatz hartuta.

Azokaren inguruko emisio jarraitua egingo du Azoka Telebistak, abenduaren 4tik 8ra, eta www.durangokoazoka.eus webgunetik eskainiko dute, euskarazko komunikabideen elkarlan zabalari esker.



Imanol, Goio, Amama eta Maddi dira obrako pertsonaiak.

Durangaldean ‘Etxekoak’ ikusteko lehenengo aukera, San Agustinen

Azaroaren 22an eskainiko dute Ander Lipusek zuzenduriko obra, Durangon

> ANTZERKIA I. E.

Jon Gerediagak idatzi eta Ander Lipusek zuzendu du Huts Teatroaren *Etxekoak* antzezlan berria, eta, domekan, 19:00etan, Durangoko San Agustin kultur-guneak eskainiko du obra Durangaldean ikusteko lehenengo aukera. Konpainia horrek ekotziriko beste antzezlan batzuek bezala — *Publikoari Gorroto*, *Hamlet*, *Errautsak*....—, azaroaren 1ean, Luhuson (Lapurdi) hasi zuen *Etxekoak*-ek ibilbidea. Eta antzezlan haiek bezala, estreinaldiaren segidan, Euskal Herriko kultur gune askotan

izango da ikusgai: hogeita hamar emanalditik gora eskainiko dituzte udara bitartean.

Aktore laukoteak dihardu *Etxekoak* lanean: zuzendari lana ere egin duen Lipusegaz batera, Maika Etxekoparrek, Javier Barandiaranek eta Kristian Etxaluzek. Goio, Maddi, Imanol eta Amamaren paperak antzeztzen dituzte, hurrenez hurren.

Euskal Herriko etxe batean dago kokaturik Jon Gerediagak idatzirik *Etxekoak*, non, “legearen arabera”, ezin den “edonor etxean sartu”. Baina Maddik Mamadou maite du.

Ander Lipusek berak azaldua duenez, istorioak bere bi zipen pertsonala du iturburu: “Itsasoaz bestalde maitemindu nintzen. Atzerriko lagunarekin egoteko aukera bakarra ezkontzea zen”. Elkarrekin bizitzeko, bidean topaturiko zentzubakorkeriez, “etxeakoak vs. kanpokoak dikotomia absurdoaz”, eta imigrazioaz dihardu obrak.

Abenduan, Elorrioren eta Berrizko kulturen ere egongo da *Etxekoak* ikusteko aukera; 11n, Arriolan, eta 12an, Berrizko kultur etxean. Otsailaren 19an ariko dira, bestalde, Zornotza Aretoan.

Zornotzako Zelaieta zentroan dago Bosteko talde-erakusketa

Abenduaren 4ra arte dago ikusgai Bizkaiko hiru artista gazteren lana, Zornotzan

> ARTEA Itsaso Esteban
Abenduaren 4ra arte egongo da ikusgai Bosteko erakusketa kolektiboa, Zelaieta zentroan.

Ana Riaño, Roberto Aguirrezabala eta Iker Serrano artista gazteen lanak hautatu ditu Bizkaiko Aldundiak, aurtan, era-

kusketa kolektibo honetarako. Zuri-beltzeko margolanak dira Ana Riañorenak (Bilbo, 1985); arte garaikidean puri-purian



Serranoren koadro koloretsuak.



Riañoren zuri-beltzeko margolanak.



Aguirrezabalaren argazkiak.

dauden gaiei buruzko lanak: egiletzari eta orijinaltasunari buruzkoak, esaterako.

Kolore bizi-bizirik darabiltza, aldiz, Iker Serranok (Iruñea, 1982). *Zaindari bat baso honetarako* izenburuko lana bildu du Bosteko erakusketa kolektiborako. Erakusketaren katalogoan esaten denez, "beste mundu batzuk irudikatzen ditu" Serranok bere koadroetan.

Roberto Aguirrezabala, Ana Riaño eta Iker Serrano artisten lanak hautatu ditu aurtan, Aldundiak

Argazkigintzako bere lana erakusten du, bestalde, Roberto Aguirrezabalak (Sestao, 1971), *Entropia* serieko hiru argazkietan: Europako XX. mendeko iraultzak inspiratu dituen oinarri filosofikoen inguruan gogoe-ta egiten du bere obragaz.

Zornotzan baino lehen, Arri-gorriagan, Basaurin eta Leioan egin ditu geldialdiak Bostekok, eta Zelaietako erakusketa amaitzean, Getxora eroango dute artelanen bilduma.

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA, 'TXOTXE'



Irakaslea

Ile-apaindegian

Aste honetako mila eta bostehun karaktereko zutabetxo honi aurre egiterakoan, Parisen ostiral gauean gertatutakoa eta hurrengo egunetan emandako erantzunak burutik kendu ezinik nabil. Frantziako banderaren koloreek eta errepublikaren ereserkiak, ekin-tzak berak bezala, uholde bat balitz bezala gure eguneroko errealitatea busti dute, "shock" egoera batean utzi gaituzte, eta berriro ere beldurra da nagusi. Ez da lehenengo aldia, hor ditugu Dorre Bikiak, Madril edota Londreseko ekintzak. Atzera begiratu ezker, honen aurrean eman diren erantzunak parekoak izan dira, banderak, ereserkiak eta ekin-tza militar-rak. Burua bor-bor, astelehe-nean ikastolara joan nintzen, klaseak ematera. Goizeko bigarren orduan, horrela banatzen dugu irakasleok denbora, antzerkiko klasea nuen, eta bat-bateko ariketa bat proposatu nien gazteei. Ile-apaintzaile eta bezero baten arteko elkarriketa asmatu behar zuten, bikote batek hasita, eta txandaka, istorio txiki bat sortu arte. Istoria forma hartzen joan zen, azken bikotearen txandara iritsi arte. Ile-apaintzaileak, Parisen gertatutakoari buruz bezeroari bere iritzia eskatu zion, eta honek, sarritan gertatzen direla horrelakoak, Sirian, Libanon edo Afganistanen-eta ez dugula ezer egiten erantzun zion. Ile-apaintzaileak ez zekien elkarriketa nondik jarraitu, isiltasuna nagusitu zen gelan, eta ikuslego papera betetzen genuenok elkarri begiratu genion. Txirrinak isiltasun horretatik atera gintuen, kanpaiak "grog" dagoen boxeolariari arnasa ematen dion bezala. Ez dakit zuei, baina niri, beldur gehiago eragiten dit isiltasun horrek, Pariseko ekintzak baino.

Musikarien egunaren harira, egitaraua

Gaur, bihar eta etzi dira emanaldiak, Durangon

> MUSIKA I. E.
Azaroaren 22 musikarien zaindarien, Santa Zetilia, eguna dela aintzat hartuta, astebururako hainbat ekintza antolatu dituzte Arandoño Kultur Elkar-teak, Durangoko Orfeoiak, Musika Bandak, eta Musika Eskolak. Gaur, esaterako, 20:15ean, *Haizea eta ura* dokumentalaren emanaldia izango da, Santa Ana elizan. Jose Luis Echechipia organojoleak zuzenduriko dokumentala da aipaturiko hori.

Bihar, 19:00etan, Durangoko Orfeoiaren txanda izango da. Zetili Deunaren omenez, meza

abestua eskainiko dute, Fernando Urainen zuzendaritzagaz.

Domekan, musikarien zaindariaren egunean, Durangon kalejira egingo du Tabira Musika Bandak

Domekan, musikarien zaindariaren egunean, kalejira egingo du Tabira Musika Bandak. 13:00etan hasiko dute kalejira, Jesús Castillejoren zuzendaritzapean.

Ikasturteko lehenengo jam session hitzordua

Azaroaren 27an izango da saioa, Plateruenean

> MUSIKA I. E.
Ikasturte honetako lehenengo jam session hitzordua ipini du Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolak. Azaroaren 27an, 21:30ean, izango da hitzordua, ohi bezala, Plateruenean.

Iñaki Rodriguez hirukoteak zabalduko du datorren barikuko jazz musikaren saio hori, eta hala nahi duten musikariak batuko zaizkie, saioak aurrera egin ahala. Iñaki Rodriguez saxofonistagaz batera, Luisa Brito kontrabaxistak eta Ramon García pianistak osatzen dute jazzeko hirukote hori.

Jazzlari ezagun eta kuttunei omenaldia eskaintzeko hainbat bertsio jotzen ditu Iñaki Rodriguezen hirukoteak, swing edo bebop estilokoak, esate baterako. Rodriguez saxofonistak sortutako doinuak ere hartuko dituzte oinarritzat, baina, Durangoko jam session-ean.

Iñaki Rodriguez hirukoteak zabalduko du azaroaren 27ko jazz emanaldia, Plateruenean

Rawums
Florschütz & Döhnert (Alemania)

Azaroaren 21ean
16:30 eta 18:30ean

Etxekoak
Huts Teatroa

Azaroaren 22an
19:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

AZAROAK 20
21:00etan
DURANGO'S PUB QUIZ
LEHIAKETA

AZAROAK 21
22:30etan
GOVERNORS
KONTZERTUA

AZAROAK 26
20:00etan
KANTALAGUN
KANTALDIA



AZAR ROAK 25

TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA ZERBITZU JURIDIKOA

946 200 492



Durangoko Merinaldearen
Amenkomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango





azaroak 25 DURANGO

URI BARRUTIETA
DURANGO RUGBY TALDEA

**Emakumeenganako
Indarkeriaren Kontra
Nazioarteko Eguna**

Azaroaren 10a 23ora

ANTZAKUEN AN

Argazki erakusketak, animazioak, bideoak
Feministak sortutako dokumentuak,
erakusketak eta diskak.

Azaroaren 15ean

18:00etan
UDALTEKO ATE HABIEN
Bentzena

Azaroaren 25ean

18:00etan
ANDIA HABIEN
Madrilgoa. Andia Habi Habi
Feministak eta 18 Habi Habi Habi
guztiak. Baita jantziak, antzezlanak
Durango plaza berria hartzen.

Azaroaren 28an

18:00etan
GURENOK ARIKETA ARIKETA
Baita 18 Habi Habi Habi
Baita 18 Habi Habi Habi
Baita 18 Habi Habi Habi
Baita 18 Habi Habi Habi
Baita 18 Habi Habi Habi

Azaroaren 28an

18:00etan
Baita 18 Habi Habi Habi

Azaroaren 29an

18:00etan
Baita 18 Habi Habi Habi
Baita 18 Habi Habi Habi
Baita 18 Habi Habi Habi

ANTZAKUEN DOKUMENTUAK

Hona hemen dokumentuak eta bideoak
Baita 18 Habi Habi Habi


ANTZAKUEN



ANTZAKUEN



ANTZAKUEN



“Emakumea historiatic desagertuta egon da beti”

Toti Martinez de Lezea idazleak berbaldia eskainiko du, Zaldibarren



Hilaren 25ean, Toti Martinez de Lezea idazlea Zaldibarren egongo da.

> LITERATURA M. Onaindia
Euskal emakumeek historian edukitako paperaz berba egingo du Toti Martinez de Lezeak (Gasteiz, 1949) Zaldibarren, hilaren 25ean, 17:30ean. Helmuga taldearen eskutik dator.

Historian emakumeek egindako ekarpena ezagutzeko balio izan dizute idazlanek? Baietz esango nuke. Emakumea historiatic desagertuta egon da beti, ez bakarrik euskalduna. Erregeak, borrokalariak...

guztiak gizonak izan dira. Normalean, historiari buruz berba egiten denean, gizonen inguruan izaten da. Gizonak egin dute historia idatzia; historia, gizonen istorio bat da. Emakumeek ez dute loturarik eduki

botereagaz. Baina, adibidez, nork transmititu du euskara? Amek. Aitak ez zeuden etxean, eta zelan egingo zuten, bada, berba umeekin? Euskal emakumeak tradizioa, hizkuntza edota siniskerak transmititu ditu, eta hor dago bere boterea, ez agintariekin.

Saiakera berezia egin al duzu emakumeak agertzeko?

Berdin jokatu dut emakumeak eta gizonak agertzeko. Jakina, emakumea naiz, eta ondo eza gutzen ditut emakumeak. Amodioa, sufrimendua, erditzea..., pertsonaia horiek indartsuak izan ohi dira, hobeto ezagutzen ditudalako. Gauza asko dago argitara ateratzeko; emakume bakoitza istorio bat da.

Literaturak lagundu al dezake emakumeenganako indarkeriari aurre egiten?

Ez dakit. Batez ere, indarkeria hori sufritu duten emakumeei lagundu ahal diela uste dut. Baina, ez dut uste literatura gauzak aldatzeko hain garrantzitsua denik, hori gizarteak aldatu behar duelakoan nago.

Zer kontatuko diezu Zaldibar-ko herritarrei?

Euskal Herrian mendetan zehar egondako andren inguruko istorio bat kontatuko diet. Emakume on eta txarrak; zortedunak eta zorterik bakoak; boteretsuak eta botere bakoak; ausartak eta koldarrak... Era guztietako emakumez berba egingo dut. Edozelan ere, nire berbaldietan, etortzen den jendearen arabera, inprobisatu ere egiten dut. Non hasten da euskal emakumea? Ez daki inork. Pentsa, inork ez daki nondik datorren euskal gizona, bada, oraindik eta gutxiago emakumea nondik datorren, lehenago sortuko zen eta! [barrez]. Euskal matriarkatuaren ideia ez dator emakumearen indarretik, baizik eta Amari izeneko ama jainkosaren sinismenetik.

Baduzu liburu berririk esku artean? Durangoko Azokan ikusiko zaitugu?

Jakina bada! Hemendik aste bira argitaratuko da. *Isilpean gordea* du izena, eta beldurraren ingurukoa izango da. Gure guraoen belaunaldiaren beldurra kontatzen dut, pentsatzeko edo berba egiteko beldurra. Durangon egunero egongo naiz; izan ere, niretzat, euskara praktikatzeko barnetegi bat lakoa da!

Inplikaziorako deia egin dute, Durangon

Abenduaren 2an horma-irudia egingo dute

> DURANGO M. O.
Durangoko Udaleko alderdi guztietako emakumeek prentsaurrekoa eskaini zuten eguaztenean, azaroaren 25aren harrera antolatutako ekitaldien berri emateko. Bertan, emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko, inplikaziorako deia egin zuten. “Emakumeak, eta, gizarte orokorrean, inplikatzeko gura dugu”, esan zuen Pilar Ríos alkateordeak.

Uri Barrutieta DRTko errugbilaria da karteiko protagonista, Europako azpitxapeldun

geratutakoa. Aitziber Irigoras alkatearen berbetan, “emakumeok ahaldun izan behar dugula gogoraraztea” izan da helburua.

Abenduaren 2an horma-irudi aldarrikatzailea egingo dute Correosen eraikin zaharrean, Ainara Azpiaturen eskutik. Zugazan ere zineforuma egongo da. Bestalde, Plataforma Feministak manifestaziorako deia egin du; hilaren 25ean izango da, 19:00etan, Andra Maritik. Udaletxean ere egongo da kontzentrazioa, 13:00etan.



Alderdi politikoetako emakumeak Uri Barrutieta gaz.

**Azaroak 21, zapatua
10:00 Tailerra.**

Indarkeriari aukerarik ez: identifikazioa eta autodefentsa. Esti Redondo. Udaletxean.

**Azaroak 25, eguaztena
17:30 Hitzaldia.**

Mujeres en la historia, Toti Martinez de Lezea. Liburutegi zaharrean. Helmuga emakume taldeak antolatuta.

19:00 Emakumeenganako indarkeriaren aurkako ibilbidea, Lehendakari Agirre parkean hasi eta udaletxeraino. Manifestua udaletxean.

Jaso ezazu zure puntu morea, eta erakutsi zure leihoan

**BELDUR BARIK
#TOPAKETA**

BELDUR BARIK TOPAKETAK
AMURRIO. Azaroak 28, 16:30. Doako autobusa
DURANGALDEKO TOPAKETA
ELORRION, Azaroak 26, 18:30 Arriola antzokian.
Info gehiago: beldurbarik.org

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN
AURKAKO
NAZIOARTEKO
EGUNA



> SARI BANAKETA I. E.

Azaroaren 26an, 18:30ean, Elorrioko Arriolan egingo duten Durangaldeko Beldur Barik Topaketara joateko deia luzatu du te eskualdeko hainbat udaletako berdintasun sailek. Gazteak indarkeria sexistaren kontra mobilizatzea helburu du Beldur Barik ekimenak, eta, ikus-entzunezko lehiaketa baten bitartez, sexismoaren inguruko eztabaida bultzatu gura du.

Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarko gazteek parte hartu dute 2015eko Durangaldeko Beldur Barik lehiaketan. Abadiñar gazteen hiru lan; durangarren hamar; berriztarren, elorriarren eta iurretarren bina ikus-entzunezko; eta zornotzarren hiru lan jaso dituzte. *Nahi duguna izateko!*, *Liberate*, edo *Nora begira?* izenburuko lanak, esaterako.

Aurten ere, bi kategoriatan (12 urtetik eta 17ra artekoenentz, eta 18tik 26ra artekoenentz) lehiatuko dira Beldur Barik lehiaketaren parte-hartzaileak. EAEko lehiaketa orokorreko lehenengo kategorian 215 lan jaso dituzte, eta 94 bigarrenentz. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako partaideen lanak jaso dituzte, hainbat formatutakoak: kantak, animazioko lanak, antzezlanak, argazki muntaiak, bertso



Beldur Barik Topaketan elkartuko dira, azaroaren 26an, Arriolan

Durangaldeko Beldur Barik lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egingo dute, Elorrioko antzokian

sortak, dantza ikuskizunak, poemak... Gehienek, baina, film laburrak aurkeztu dituzte Beldur Barik lehiaketara. Denera, 207 jaso dituzte antolatzaileek.

Kategoria bakoitzean sari bi emango dituzte Durangaldeko

Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarko gazteek aurkeztu dituzte lanak lehiaketara

lehiaketan: 12 eta 17 urte artekoen kategorian 150 euroko sari nagusia, eta 100 euroko aipamen berezia emango dituzte. Bigarren kategorian, aldiz, horren bikoitza izango da sariaren zenbatekoa: 300 eurokoa lehenengo, eta 100 euroko aipamen berezia emango ditu epaimahaiak.

Durangaldeko lehiaketara aurkezturiko lanek EAEko lehiaketan ere hartuko dute parte, eta hango sariak ere irabazi

ahalko dituzte: 500 euroko sari nagusia lanik onenak, edo 300 euroko aipamen berezia.

Zaldibar, Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, eta Iurretako udalek izendaturiko epaimahaiak erabakiko du Durangaldeko Beldur Barik lehiaketaren saridunen zerrenda: berdintasun politiketan eta emakumeekiko indarkeriaren aurka diharduten hainbat lagunek osaturiko epaimahaiak.

**AZAROAK 25
EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA**

AZAROAK 25
17:00 Herri Kirol mistoak
Urtiaga plazan.

19:00 KONTZENTRAZIOA Urtiaga Plazan
Emakumeen aurkako indarkeriari ez!
Adierazpen instituzionalaren irakurketa.

20:00 Refugiado pelikula Kultur Etxean.
Doan. Iraupena: 75'

AZAROAK 26
19:00 DURANGALDEA
BELDUR BARIK JARRERA 2015
LEHIKETAREN SARI
BANAKETA / TOPAKETA
Arriola Antzokia. Elorrio. Doan.

AZAROAK 28
16:00/22:15 EAE
BELDUR BARIK JARRERA 2015
LEHIKETAREN SARI
BANAKETA / TOPAKETA
Amurrio, Autobusak doan.
Informazioa: Berdintasun Zerbitzua.

Har ezazu puntu more bat eta jarri zure etxeko edo establezimenduko leihoan. Lagundu Berriz puntu morez betetzen!

Puntu morea, herriko gune hauetan eskuragarri:
Udaletxean - Kultur etxean - Ikastetxean - Kiroldegian

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIARI EZ



lazko Beldur Barik lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia.



Abadiñoko talde baten 'Nahi duguna izateko!' lanaren sekuentzia bat.



Antzerkian eta zinean emakume izateaz, Lara Izagirre eta Miren Larrea

Zinegileak eta aktoreak euren bizipenak kontatuko dituzte azaroaren 24an, 20:00etan, Zornotza Aretoan



Lara Izagirre zinema zuzendaria.



Miren Larrea, 'Pintto pintto' antzezlanean.

> ZORNOTZA A. U.

Biak dabilta kulturgintzan murgilduta; Lara Izagirrek zinema, eta Miren Larreak antzerkian, nahiko maskulinoak diren munduekin egin dute to-

po. Azaroaren 24an, emakume legez euren lana zelan bizi duten kontatuko dute bi gazte zornotzarrek. Kazetari batek dinamizatuta, entzuleek parte hartzeko moduko solasaldia izango da

Azaroaren 25aren harira Zornotzan antolatuko den jarduerak garrantzitsuenetako bat.

Boterea, kulturgintza arloko erronkak, emakumeen ikusgarritasuna... hainbat gai ahotan

hartuta jardungo dute Lara Izagirrek eta Miren Larreak. Izagirrek, hainbat lan egin ostean, aurten estreinatu du bere lehen film luzea, *Un otoño sin Berlin*, eta Donostiako Zinemaldian harrera beroa izan eta gero, berriki estreinatu da filma zinema-aretoetan. Larreak, bere aldetik, esperientzia handia du antzezle, titiritero eta sortzaile lez, eta *Pintto pintto* antzezlana da bere azken lana. Izagirrek eta Larreak Zornotza Aretoan eskainiko dute berbaldia, datorren martitzenean, 20:00etan.

Gazteenei begira

Berbaldiaren biharamunean, azaroaren 25ean bertan, urteroko elkarretaratzea egingo dute, 13:00etan, Herriko Plazan. Bertan, emakumeenganako indarkeriaren kontrako adierazpen instituzionala irakurriko dute. Arratsaldean, Gaztetxokoan izango dira jarduerak: hama materialarekin txapak egiteko tailerra egingo dute, eta Beldur Barik gunea ere egongo da

bertan. Sentsibilizazio espazio bat izango da, kanpainaren triptikoeekin, eta indarkeriaren kontrako informazio, kartel eta pegatinekin.

Datorren barikuan, azaroaren 27an, genero ikuspegia lantzen duen *Amelie, ipuinen jostuna* ipuin kontakizuna izango da, udal liburutegian. 4 eta 8 urte bitarteko umeei zuzendu-

Nahiko maskulinoak den munduan, euren lana zelan bizi duten kontatuko dute Izagirrek eta Larreak

Azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo dute, 13:00etan, plazan. Arratsaldean, jarduerak Gaztetxokoan izango dira

tako emanaldia izango da, eta 18:00etan hasiko da.

Autodefentsa tailerra

Bestalde, azaroaren 21ean, autodefentsa feminista tailerra egingo dute, Zelaietan. Azken hiru urteotan egin izan den tailerra da hori, eta arrakasta handia izan duena.

**AZAROAK
25
EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIARI EZ**

Azaroak 10:00 / 14:00 eta 16:00 / 20:00
21 Zelaietan
Autodefentsa feminista tailerra.

Azaroak 20:00
24 Zornotza Aretoan
Berdintasun berbaldiak Miren Larrea eta Lara Izagirrerekin.

Azaroak 13:00
25 Herriko plazan
Deklarazio instituzionala
18:00/20:00
Gaztetxokoan
Hamarekin txapak egiteko tailerra eta Beldur Barik gunea.

Azaroak 18:00
27 Udal Liburutegian
Amelie, ipuinen jostuna ipuin kontalaria



Orain Facebooken ere bagaude!
(Amorebieta-Etxano Berdintasun Sola)

Elorrioko ikasleak kontzientziazteko saio bereziak deitu dituzte

Bideoak, aureskuak, argazkiak, ezpainak gorritz margotzea... ekintza asko egingo dituzte ikasleek

> ELORRIO Markel Onaindia Emakumeenganako indarkeriarik bako etorkizuna lortzeko, ume eta gazteekin lan egin beharko da. Hausnarketa hori egiten dute gero eta ikastetxe gehiagotan, eta, Elorrioren ere, aparteko indarrez antolatu dituzte azaroaren 25erako ekitaldiak. Elorrioko ikasleak kontzientziazteko saio bereziak iragarri dituzte, datorren asterako.

Elorrioko eskola, Lourdesko Ama, Txintxirri ikastola, Elorrioko Institutua eta Maria Bitarteko ikastetxeetako egitarauak udal programan sartu dituzte. Datorren asteko egunetan zehar, hausnarketa eta tailer ugari egiteko aukera edukiko dute ikasleek. Adibidez, puntu moreak irudikatzea izango da garatuko duten tailerretako bat. Indarkeriaren aurkako aldarrikapenak hainbat hizkuntzatan zabalduko dituzte, eta ikuspegi baikorra eman guran, "praktika

onen" inguruko jarduerak burutuko dituzte.

Informatzaile

Gainera, euren familien informatzaile ere bihurtuko dira ikasle gazteak; emakumeenganako indarkeriaren kontra eta berdintasun ikuspegitik hezteko beharra islatzea izango da ekimenaren helburua.

Aureskua

Ikastetxez ikastetxe askotarik ekintzak iragarri dituzte. Institutuan, esaterako, sentsibilizaziorako bideoak ipiniko dituzte, eta, ostean, ikasle bakoitzak mezu bat idatzi beharko du kartulina batean. Mezu positiboak izatea lehenetsiko dute, emakumeen ahalduntzeagaz lotutakoak. Eskolan ere mezuak idatziko dituzte, oihala eta paper zatietan.

Institutuak eta eskolak ekitaldi bateratu bat egingo dute,



laz ere ekitaldiak burutu zituzten Elorrioko institutuan.

Emakumezko irakasle batek eta aita batek aureskua dantzatuko dute batera, eta, ostean, argazkia aterako dute

25ean. Emakumezko irakasle batek eta aita batek aureskua dantzatuko dute batera, eta, ostean, argazkia aterako dute ikastetxe bietako kide guztiek.

Ezpainak gorritz

Maria Bitarteko ikastetxean ekintza bitxia egingo dute. Irakasleak ezpainak gorritz margotuta ibiliko dira hilaren 25ean, eta, egunak aurrera egin ahala, ikasleek ere margotuko dituzte.

Mila arrazoi

Lourdesko Ama eskolan bideo bat landuko dute guztiek batera. Bertan, adin askotako ikasleak agertuko dira, eta bakoitzak mezu bat botako du, indarkeriaren aurka "mila arrazoi" daudela irudikatzen.

Txintxirri ikastolan, osteratutoretza orduak aprobetxatuko dituzte, eta ziklo bakoitzean ikuspegi desberdin batetik landuko dute gaia.

**INDARKERIA
MATXISTARI
EZ!**

AZAROAK 25

**Azaroak 25
Emakumeenganako
indarkeriaren
kontrako
nazioarteko eguna**

Adieraz ezazu
indarkeria matxistaren
kontrako jarrera zure
leihoan eta...

**Goazen kontzentrazioara
25ean, 19:00etan!**

ELORRIO, INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA!

EGUNA	ORDUA	EKINTZA		LEKUA
24, martitzena	18:00-20:00	Kaleak gureak dira! tailerra	Izena emateko: 946 582 712 Berdintasun Arloa	Iturri Kultur Etxean
	19:00	Osoko bilkuraren batzarra, Azaroaren 25arekin bat egiteko	Etorri!	Udaletxean
25, eguzitena	19:00-19:15	Kontzentrazio isila	Etorri!	Herriko plazan
26, eguzia	18:30	Beldur Barik-en bideo lehiaketaren sari banaketa	Etorri!	Arriola Antzokian
27, barikua	17:00etan saio bakarra	Ines Bengoa ipuin kontalaria "Berdintasuna maite dugulako". 4-9 urte bitarteko umeak	Etorri!	Iturri Kultur Etxean
28, zapetua	11:00	Indarkeriaren kontrako horma-irudia margotuko dugu	Etorri!	Herriko plazan, elkarrekin joateko
	16:30-22:00	Gazteentzako Beldur Barik-eko topaketa	Izena emateko: www.beldurbarik.org	Amurrión
Asteaz zehir Elorrioko ikastetxeek antolatutakoak	- Hezkuntzako ikasle guztiekin hausnartze-tailerrak, bideoak, jokoak, eztabaidak. - Puntu morea: irudikatu, bere esanahia ulertarazi, ikasleen artean giza emea sortu eta argazkia egin. - Indarkeriaren kontrako mezua aldarrikatu: hainbat hizkuntzatan, "tratu onak" praktikatzeko bideoa, aureskua, marrazkiak, musuak irudikatu. - Familiei mezua helarazi: emakumeenganako indarkeriaren kontra eta berdintasunean hezteko beharra.			Elorrioko Eskola Lourdesko Ama Txintxirri Ikastola Elorrioko Institutua Maria Bitarteko Ikastetxea



Ilustrazioa bitarteko moduan erabilita, gai feministez hausnartzeko tartea hartuz

‘Feminismo ilustratuak’ tailerra gidatuko dute Nagore Txintxurretak eta Irati Egurenak, Abadiñon



Ilustrazioa hausnarketarako tresna gisa hartuz gai feministak landuko dituzte astebururako antolatutako tailerrean. N.T.

> ABADIÑO A.B.

Baliabide plastikoak erabilita gai feministez hausnartzeko aukera dute, Abadiñon. Izan ere, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko

Egunaren haritik, *Feminismo ilustratuak* tailerra antolatu dute, azaroaren 21 eta 22rako.

Gai feministak landuko dituzte, “modu ludikoan eta ondo pasatzeko asmoz”. Horrela azal-

du dute tailerra gidatuko duten Nagore Txintxurretak eta Irati Egurenak: “Jendartean emakumeok bizitako egoerari buruzko gogoeta egingo dugu; norberari buruzkoa eta norberaren gor-

putzari buruzko gogoeta. Harremanak nola bizi ditugun ere aztertuko dugu, eta estereotipoak

“Gizarteak inposatutako estereotipo eta jarreretikiko kritikotasuna adierazteko” jarduerak prestatu dituzte

“Komunikazioa da ilustrazioaren helburua, beraz, tresna paregabea dugu nahi ditugun ideiak plastikoki adierazteko”

zalantzan jarriko ditugu. Plastikoki landuko dugu guztia”.

Ahalduntzea helburu

Emakumeen ahalduntzea du helburu tailerrak. “Beldurrak eta epaiak alboratu, eta ‘nik ez dakit marrazten’ ideia horretatik ihes egin gura dugu, denok sortzaileak garelako sentitu, as-

katu”. Txintxurretak eta Egurenak lehenengoz egingo dute horrelako tailerra eta “mimo eta gogo handiz” prestatu dute. Pozik daude izan duen harreragaz. Talde txikian arituko dira, eta horrek “kalitatea” eskaintzeko aukera emango die.

Sormena protagonista nagusi dela, “gizarteak inposatutako estereotipo eta jarreretikiko kritikotasuna adierazteko” jarduerak prestatu dituzte tailerrera. Era berean, hainbat emakume artistaren lanak erakutsiko dituzte. “Komunikazioa da ilustrazioaren helburua, beraz, tresna paregabea dugu nahi ditugun ideiak plastikoki adierazteko”, diote. “Gogoeta eta plazererako tartea” hartuko dute Abadiñon.

Elkarretaratzea

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren haritik, bestelako ekintzarik ere izango da. Azaroaren 25ean, elkarretaratzea deitu dute, 18:00etan, Traña-Matienan; eta, hilaren 28an, *Sex o no sex* (Oihulari Klowen) obra egongo da ikusgai, Errota kultur etxean. Abenduaren 12rako, Autodefentsa feminista tailerra antolatu dute, Txanporta kultur etxean. Abenduaren 2ra arte eman daiteke izena, Errotan edo Mediatekan.

AZAROAK 25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

**ADIERAZI
ZURE GAITZESPEN IRMOA
INDARKERIA SEXISTARI ZURE
ETXEKO LEIHOAN, NEGOZIOAN...
PUNTU HAU JARRIZ.**

Abadiño
Euzko Udala
Emakumeen eta Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna



Abadiñoko Udalak, abadiñar guztiei dei egiten dizuegu ondorengo jardueretan parte hartzera:

AZAROAK 21 eta 22

**Tailerra
FEMINISMO ILUSTRATUAK**
Hezitzaileak:
Irati Eguren eta Nagore Txintxurretak
10:00-14:00 Txanporta Kultur Etxea
Izen-ematea: Errota, Mediateka
Azaroaren 16ra arte.

AZAROAK 25

**Kontzentrazioa
EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA**
18:00 Trañabarren Kalea

AZAROAK 26

Sari Banaketa teatralizatua
“Karrika Antzerki Taldea”-ren eskutik
**DURANGALDEA BELDUR BARIK
LEHIAKETA**
18:30 Arriola Antzokia - Elorrio

AZAROAK 28

BELDUR BARIK TOPAKETA
16:00 Amurrio
www.beldurbarik.org

AZAROAK 28

**Antzerkia
SEX O NO SEX** Oihulari Klowen
19:00 - Sarrera: 2 euro
Sarreraren salmenta:
Errota Kultur Etxea, udal mediateka

ABENDUAK 12

**Tailerra
AUTODEFENTSA FEMINISTA**
Hezitzaileak:
Isa Bernal
10:00-14:00 eta 15:30-19:30
Txanporta Kultur Etxea
Izen-ematea: Errota, Mediateka
Abenduaren 2ra arte

“Ez nago binetak gordetzearen alde, bizitzak gordetzearen alde baino”

Emakumeenganako indarkeria komikigintzan zelan islatzen den azalduko du Muñozek, Iurretan

> KOMIKIGINTZA J. Guenetxea Komikigintza lantzeko eredu jakin batzuek ezin hobeto islatzen dute emakumeenganako biolentzia. Skolastikako Josune Muñozek ohartarazi duenez, sarritan, irudi ederrren atzean biolentzia gordina ezkututzen da. Ildo horretatik, komikigintzan emakumearen papera zein izan den azalduko du Muñozek, azaroaren 23an, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Gainera, komikietan emakumeenganako indarkeria zein modutan islatzen den ere aztertuko du.

Zein da orokorrean emakumearen papera komikietan? Hasteko, subjektu eta objektu moduan bereiztuko nuke emakumea komikigintzan. Emakumea objektu bat izan denean, erabat sexista eta misoginiatik oso hurbil ibili da beti. Beste kontu bat da emakumea denean egilea. Hau da, emakumeak berak sortzen dituen istorioak. Dena dela, emakumea, komikigintzaren historian, objektua izan da batez ere.

Badago emakumeei zuzendutako komikigintzarik? Marjorie Hendersonen Lulu Txikia, esate baterako, salbuespena izan daiteke. Emakume baten lana da. Lan hau garaiko neskato protagonistekin alderatzen baduzu, Luluren ñabardura feminista begibistakoa da. Solte, beti egon dira egile batzuk, baina taldeka, emakumea komikigintzan.

Badago emakumeei zuzendutako komikigintzarik?

Marjorie Hendersonen Lulu Txikia, esate baterako, salbuespena izan daiteke. Emakume baten lana da. Lan hau garaiko neskato protagonistekin alderatzen baduzu, Luluren ñabardura feminista begibistakoa da. Solte, beti egon dira egile batzuk, baina taldeka, emakumea komikigintzan.



Josune Muñozek Skolastikan lan egiten du.

meak neskontzako komikigintzan sartzen dira. Hor sortzen da, gainera, oraindik ere mantentzen den aurreiritzia.

Emakumeei zuzendutako komikigintza horrek zein ezaugarri ditu?

Irudi idealizatu bat lantzen da. Etxeko erregina eta aingeru moduan agertzen da emakumea. Beti pasibo. Irribarre batekin, menpekotasuna onartzen. Hor kontatzen diren istorioak sentimentalak dira beti, eleberri sentimentalen arrakastaren ildotik. Arazoa da, emakumeentzako txokoa bilakatzen direla. Beraz, emakume batek komikigintzan sartu gura badu, beti eramango dute txoko horretara, merkatuak baduelako emakumeentzako esparru bat. Hortik sortzen da gaur egungo emakume egile askok material horrekin duten aurrejuzkua ere.

Komikigintza horrek zein ezaugarri ditu?

Esan daiteke, batetik, mezu esplizituak daudela. Hauek frankismoaren sasoian proposatzen zen iruditegia dute. Hau da, sentimental, etxera bueltatzearena, estatutik inposatzen zen emakume irudia. Bestetik, kritika literario feministan aritzen garenok bilakatu ditugu azpimezuak edo inplizitoki dauden mezu batzuk. Adibidez, 50eko hamarkadan arrakasta handia izan zuen Floritak. Proposatzen duen abentura sentimentala izango da, baina, horretan, ez pentsa hain atzerakoia denik. Gaur egun ere, horixe da emakume gazteei inposatzen zaien

mezua. Emakume baten anbizio eta helburu nagusia sentimental dela transmititzen da. Hori ez da aldatu. Gizonezkoei helburu laborala edo kirolarekin hartu-emana duena helarazten diete, esparru publikoarekin zerikusia duena. Emakume gazte bati, oster, esaten zaio helburu laborala izatea ondo dagoela maitasuna eta familia ez dauden bitartean. Baina, benetako helburua heltzen denean, dena bigarren mailara pasatu behar dela. Eta hori etenik barik ari da transmititzen.

Zentzu honetan, badago salbuespenik?

Floritan, esate baterako, proposatzen diren istorioak nahiko sentimentalak dira, baina badaude beste material mota batzuk. Vidas Célebres-en, esate baterako, ez dakit zein mendetako erizain bat agertzen da, edo AEBeko lehenengo emakume medikua. Eredu bat dago, baina badaude eredu alternatiboak, beste era batean proposatuta, jakina.

Emakumeenganako biolentzia zelan islatzen da komikietan?

Komikigintzan emakumeenganako biolentzia mota guztiak islatzen dira. Izan ere, komikiak izan daitezke, ikuspuntu pedagogikotik aztertuta, emakumeenganako biolentzia mota guztiak ondoen erakusten eta irakasten dituen arloa. Komikigintzan dena aurkituko duzu. Ahozko indarkeria eta indarkeria fisikoa. Zailagoak diren indarkeriak agerian gelditzen dira. Ahozko indarkeria, eta, ba-

tez ere, indarkeria sinbolikoa. Ideiak, irudiak, iruditegiak... komikigintzan ikusi egiten dira. Segundo batean transmititzen dira, gainera.

Iurretako berbaldian zein komiki landuko duzue? Azalpen praktikoak izango dira?

Maisu misogino horien lanak aztertuko ditugu, eta baita emakumeok sortutako komiki misoginoak ere. Hau da, Robert Crowdek animalizatu egiten ditu emakumeak, gizatasuna kentzen die. Edo, Milomanarak pornografiatu eta umiliatu egiten ditu. Badaude material erakargarriagoak eta erabat arriskuak direnak. Maria Lloveten materialaz ari naiz. Heart Beat deitzen da. Autoreak sortutako irudi eder horien aurrean, azpimarratu nahi dugu emakumeenganako indarkeria fisikoa era estetiko erakargarrian ager daitekeela. Edo morbosoa, edo pizgarria. Nahi duguna da tresnak eskaintzea, ideia hori desgiteko. Indarkeria gordinak era estetiko ederrean agertzen dira. Pentsatzen gabiltza epaitegietan hori zelan salatu. Komiki horretan agertzen den emakumeenganako biolentzia hain da bortitza! Argialetxeak ere esnarazi nahi ditugu. Beraiek ere badute ardura bat. Arazo larria dugu, eta ezin dugu horretan sakontzen duen materialik argitaratu. Kontrola egin gura izan denean egin da. Eztabaida hau piztea beharrezkoa da. Ni ez nago binetak gordetzearen alde, bizitzak gordetzearen alde baino. Irudi bat ala bizitza bat da zaindu behar dena?

BELDUR BARIK 2015

25 ORTE

20 19:00 IBARRETXE KULTUR ETXEAN
Antzerkia
LAKRIKUN ANTZERKI TALDEA
"NON GAUDE?" (Euskara)

24 18:30 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA
Lazo ilen eta pegatinen banaketa.
Udala - Osoko bilkura
Adierazpen instituzionalaren irakurketa

26 18:30 Elorrio Arriola Antzokia
DURANGALDEA
BELDUR BARIK JARRERA 2015
TOPAKETA
Sari banaketa

23-27 IBARRETXE KULTUR ETXEA
Erakusketa
"Emakumeenganako indarkeriak komikietan"

23 18:30 IBARRETXE KULTUR ETXEA
Hitzaldia
Hizlaria: Josune Muñoz (Skolastika)

27 20:00 IBARRETXE KULTUR ETXEA
Ipuin kontalaria
"Mujeres de palabra" de Victoria Siedlecki (Argentina)

23-27 HERRITIK ZEHAR
Erakusketa
"Gure adierazpenak"

24 18:30 IBARRETXE KULTUR ETXEA
Bideo-foruma
"VIOLETTE" Moderatzailea: Eskarne Larriaga

26 18:30 Amurrio Beldur Barik 2015
Topaketa Orokorra
BUS (aurretiaz eskatuta)

www.durangokoazoka.eus

abenduaren 4tik 8ra

Nirea, zurea,
gurea da
Euskalduna da
Mundiala da
Lagunartea,
giroa eta besta da
Sorkuntza da
Kultura da
Nortasuna da
Izan da, da
eta izango da

50.

DA!



Nevadah taldea | Jokin Alberdi, Pello Baños, Liher Arteaga, Jon Agirre eta Jon Agirrebeitia



“Hasiera-hasieratik sortu zen kimika elkarregaz jotzean”

Duela urtebete sortu zuten Nevadah taldeaz mintzatu dira boskoteko kideak

> MUSIKA I. Esteban

Datozen bi asteburuetan bina kontzertu dituzue, Durango-ko jaietan estreinaldia egin eta gero. Zeintzuk dira hitzorduak?

Jon Agirrebeitia: Gaur, Durangaldeko Maketa Lehiaketaren barruko kontzertua eskainiko dugu, Zornotzan, eta Otxandio-ko Gaztetxean, bihar. Hurrengo asteburuan, azaroaren 27an, Ondarruko Portuko Ranpan joko dugu, eta Atxondoko Gaztetxean, azaroaren 28an.

Jon Agirre: Sermond's taldea-rekin batera joko dugu Apatan, euren aurretik, eta aukera ederra izango da!

Aukera ederra izan daiteke Maketa lehiaketakoa ere, ezta?

Jon Agirrebeitia: Aukera polita da, bai, baina lasai hartzea gura dugu. Dakiguna egitera goaz, buruan ez darabilgu irabaztea.

Jon Agirre: Kontzertu bat izango da gaurkoa, gure bigarrena, hain zuzen ere. Eta, hain justu

ere, kontzertu gehiago jotzea da behar duguna: Durangoko lehenengo kontzertu haren moduko gehiago eskaintzeko gai garela erakusteko geure buruari.

Pello Baños: Argi dago, baina, irabaztea itzela litzateke: 1.500 eurokoa da saria...

Zer ezaugarri ditu Nevadah taldeak epaimahaiak alde positiboan zerrendatu ditzakeenak?

Jon Agirre: Oholtzan erakusten dugun jarrera eta gogoia.

Jokin Alberdi: Aldeko beste puntu bat da kantak lehen baino gehiago lantzen ditugula.

Pello Baños: Nevadah sortzeko elkartu ginenean, argi geneukan zeozer serioagoa egin gura genuela: kantak gehiago landu. Eta igartzen da hori ere.

Zelan sortu zen 2014ko abuztuan Nevadah?

Jokin Alberdi: Trastorno taldean ibili eta gero, talde barik geunden Liher eta biok. Baina, jotzeko gogo itzela geneukan. Hasi ginen, eta laster batu zitzaizkigun taldekideak.

Musika mota hau jotzeko gogotsu zeundeten?

Pello Baños: Jotzeko gogoia da, batez ere, elkartu gaituena.

Jon Agirrebeitia: Nik, adibidez, Kruders taldean ere jotzen dut, eta gogoia neukan rock & rollari lotuta zeozer egiteko. Hasiera-hasieratik sortu zen kimika elkarregaz jotzean.

Kanta bi daukazue grabatuta, eta zuen Facebook orrialdean daude entzungai.

Jon Agirrebeitia: Konturatu ginen gure proiektua ezagutzera ematea behar genuela, eta kontzertu bat eta Interneten zabaltzeko kantaren bat egin genituen, helburu horregaz.

Jon Agirre: Ona izan zen erabakia, izan ere, horrela, jendeak bazekien zelako kantak egiten genituen lehenengo kontzertura etorri orduko.

Zer erreperitorio daukazue?

Jon Agirre: Bederatzi kanta dauzkagu, geuk egindakoa, eta bi bertsio ere jotzen ditugu. Rock & rolla estilokoak dira, baina oso anitzak ere bai: batzuek ukitu blueseroagoa daukate, beste batzuk bizkorragoak dira, punk rocketik gertu daudenak...

Kanten letrei garrantzi handia ematen diezue?

Jon Agirre: Bai, eta helburu bat daukagu hitzei dagokienez: hori delako gure nortasuna, euskaraz idaztea. Baina, zaila egiten zaigu rock & rolla euskaraz kantatzea: sonoritateagatik, edo entzuten dugun musika hizkuntza horretakoa delako, ingelesera jotzen dugu. Bitxia da, baina, punk rockeroagoak edo stoner-agoak diren kantetan, hobeto egokitzen da euskara. Aurretik euskaraz eta ingelesez, bietara kantatu gura dugu.

Durangoko jaietan, txosnagunean, eskaini zuten Nevadah boskoteak lehenengo kontzertua. Gogoratu dutenez, ordu asko eman zituzten kontzertu hori prestatzen: “Lehenengo zelako, eta Durangoko jaietan jotzea berezia delako denontzat”. Kontzertua prestatzerakoan, erantzukizun handia sentitu zutela onartu dute, eta “oso urduri” egon zirela.

Oso pozik daude estreinaldiko esperientzia horregaz: “Lehenengo kontzertua Durangoko jaietan, txosnetan, jotzea ederra izan zen: soinua ona zen, oholtza handia, eta entzulegoa zabala...”. Landakogunea oso handia izan arren, entzuleen berotasuna sumatu zutela azpimarratu dute. “Jendea aurre-aurrean egon zen, giro polita sortu zen”, Agirre

abeteslariaren berbetan. Taldekie asko laguntzen dute giroa hoztu ez dadin. Agirreren berbetan, “guk baino hobeto jotzen dutenak asko daude, baina gutxiak daukate guk oholtzan daukagun jarrera: barru-barruan sentitzen dugu musika”.

Astelehenak arinduz

Astelehen arratsaldetan elkar-tzen dira Nevadah taldeko bost kideak, Aliendaldeko lokalean entseatzera. Astelehenak, “astelehen gogorak” deritzenak, batez ere, entseguak gozatzen dizkiela kontatu dute gazteek. Desiratzen egoten direla, lanegunaren ostean, lokalean elkartu eta kantak sortzeko. Izan ere, Mañaria, Durango eta Abadiñoko gazteok bizitzako gauzarik inportanteenetako bat bezala bizi dute musika.

“Lehenengo kontzertua Durangoko jaietan jotzea ederra izan zen”

Estreinaldiko kontzertuaren oroitzapen polita dute Nevadah-ko kideek



Argazkia: Amaia Zaitegi.

Txabi Ardanza (Abadiño, 1961) | Sokatiralaria

Txabi Ardanza, Abadiñon, elkarriketaren ostean.

“Munduko Txapelketa batean, 55 minutuko tiraldia egin genuen”

Lesioen eta egoera pertsonalen eraginez, Abadiñok Munduko Txapelketan parte hartzea ez dago seguru

> SOKATIRA **Markel Onaindia**
Goma gainean, munduko sokatira talderik onenetakoa da Abadiñokoa, dominak irabaztera ohituta egon dena. Otsailean, Munduko Txapelketa jokatu da, Herbehereetan, eta ustekabean, momentuz, abadiñarren parte-hartzea ez dago segurtatuta. Egoera hori azaldu du taldeko beteranoetako batek, Txabi Ardanzak. 1980 inguruan hasi omen zen sokatiran, eta, 54 urtegaz, oraindik indartsu eta gogotsu dabil. Semeari ere transmititu dio zaletasuna. Sokatiran bezala erantzun die kazetariaren galderi; lasai, ondo eutsiz, eta behar denean kolpea emanez.

Munduko Txapelketan parte hartzeko arazoekin zabilatzela entzun dugu. Egia da?
Zorte txarragaz hasi gara aurtun. Lehenik, niri uztailan ebakuntza egin zidaten, apendizekoa. Denboraz errekupe-ratu naiz, baina, kasualitatez, urrian, Mikel Lasueni ere apendizeko ebakuntza egin diote. Bera atzelaria da, garrantzitsua.

“**Abadiñoko taldea 1991n sortu zen, eta hainbeste urtean ez dugu arazorik eduki**”

Orain, Asier Iturriagak istripua eduki berri du, eta ez dakigu zenbat denbora beharko duen indarberritzeko. Bestalde, beste bat Kataluniara joan zen, han geratzeko asmoagaz, eta, guztia batuta, jendez justu gabilta. Normalean, hamabi bat egoten gara taldean, eta hortik hiruk huts eginez gero, igarri egiten da. Hurrengo egunetan berba egiteko geratu gara, zelan gauden eta Munduko Txapelketara joateko prest zenbat gauden ikusteko.

Ez da segurua, beraz, parte hartzea?

Larri gabilta. Gura dugu, baina justu gaude. Bagabilta prestatzen, baina bidaiak-eta denboraz hartu behar dira. Justu ibilita,

gero, bateren bat joan ezin bada, zer egingo dugu? Guztia ordaindu ostean ez gara joango?

Marka da, bada, mundu mailan onenen artean dagoen Abadiñori hori gertatzea...
Orain arte gertatu bakoa gertatu zaigu. Zortea eduki izan dugu beti, urte guztietan ez direlako gauzak horrela joaten. Aurtun, pilatu egin zaizkigu lesioak, istripuak... Abadiñoko taldea 1991n sortu zen, eta hainbeste urtean ez dugu arazorik eduki. Egia esanda, lehenago, jende gehiago eduki dugu taldean, hamalau edo hamabostegaz ibili izan gara. Orain, falta direnetatik bi edo hiru sasoiz bueltatzeko esperantza daukagu. Joango gara esango nuke, baina ez dago seguru.

Taldeko kirola da sokatira, eta berriren bat agertuz gero ere, denbora beharko du...

Gaitasun bereziko mutil bat da, edo bestela urte batzuk beharko ditu taldera egiteko. Gazte batzuk badatoz, eta gu justu egoterra, aurtun uste baino gehiago ti-

“**Tamaina handiko tiralariak ere behar ditugu taldean, altuak, eta pisua dutenak**”

ratu beharko dute, akaso. Horrela bada, zailduko dira. Baina, tamaina handiko tiralariak ere behar ditugu taldean, altuak, eta pisua dutenak.

Munduko Txapelketara joateko gogoa behintzat baduzue, ezta?

Bai, gogoa bai. Niri behintzat, hemendik aurrera ez zait aukera askorik geldituko eta! [barrez].

Zu noiztik zabilta tiratzen?

Abadiñon, hasieratik. Baina, aurretik ere ibili nintzen, 1980an izango zen lehenengoz. Jaietan-eta tiratzen genuen, eta Euskadiko Txapelketan Atxondokoekin batera ibiltzen ginen, nahasturik.

“**Abadiñok Euskadiko txapela 48 bat bider irabazi du, eta mordo bat egongo dira nire etxean**”

Goma eta lur gainekoak kon-tuan hartuta, txapel eta garai-kur ugari edukiko duzu etxean, ala?

Armairu batean ditut txapelak, eta elkarren gainean ipinita, horrelako altuera hartzen dute [gerri inguruan ipini du eskua]. Abadiñok Euskadiko txapela 48 bat bider irabazi du, eta horietatik mordo bat egongo dira nire etxean, 40 bat bai. Baina nik baino gehiago dituztenak ere egongo dira.

Esperientzia handikoa zarenez, kontaiguzu, zer behar da sokatiran ondo ibiltzeko?

Sokan, egoten ikastea da zaila. Indarra egin, eta lar estutu edo nekatu barik egoten ikasi behar da. Berri bat datorrenean, ez dio orekari eusten, eta urduri jartzen da. Zenbat eta estuago egon, orduan eta gutxiago eutsiko diozu sokan, arnasa gehiago behar duzulako. Tiraldi batean, lehenengo, aurkariaren kolpeari eutsi behar diozu, eta gero, ahal bada, eroso egon.

Hainbeste urtean sokatiran ibilita, anekdota ugari edukiko duzu...

Munduko Txapelketan anekdota oso on bat daukat. Finalerdia zen, eta 55 minutuko tiraldia egin genuen, alde batera! Eta bestaldera, beste hamar minututik gora izan ziren. Galdu egin genuen. Oso arraroa izan zen. 22. minutuan gindoazela, eurek falta bi zeuzkaten, eta guk bat ere ez. Hirugarren faltagaz kalera zoaz. Epaile amerikar bat zen, eta aurkariak lurretik ibili arren ere, luzatu eta luzatu egin zuen tiraldia. Azkenean, gu nahastu ginen. Finalerako sailkatu ziren; baina, gure aurka tiratu, eta euretako bat anbulantzian eraman zuten segituan, eta finalera ailegatu orduko beste bat ere gaizki ipini zen. Azkenean, ez zuten tiratu.

55 minutuko tiraldia ez da sarri jazoko, ezta?

Sekula ere ez da horrelako tiraldirik egin, ez Munduko Txapelketetan ez inon. Errekor moduan dago; hurrengo, hamabost bat minutura egongo da.

“Ez nuen espero nire mailan hain salto inportantea ematea aurten”

Gurutze Fradesek Iron Manen ranking-eko hamar onenen artean amaitu du denboraldia eta munduko txapelketara sailkatzeko aukera handiak ditu



Gurutze Frades eskumaldean, Malaysiako podiumean.

> KORRIKA J. D.

Zenbat eta gorago aritu, orduan eta zailagoa da salto kualitatibo bat ematea, baina Gurutze Fradesek (MugarraTT) jauzi berri bat ematea lortu du aurtengo denboraldian. Iron Manetan sekulako emaitzak lortu ditu, eta esku-eskura du 2016an Hawaiiko munduko txapelketan parte

hartzeko sailkapena: “Ez nuen espero nire mailan hain salto inportantea ematerik aurten”, onartu du iurretarrak. Datorren denboraldia erronka berri eta kitzikagarritz beteaz izango du. 34 urte gaz bere sabaia bilatzen ari da, oraindik, iurretako triatleta bikaina.

Abuztuaren 31n Frantzia

lehiatutako Vichy Iron Manean lortutako garaipena mugarri bat izan zuen: “Ahalik ondoen egitera nindoan, eta postuaren arabera erabakiko nuen Iron Manetan zentratu edo ez. Irabaztea itzela izan zen, ikaragarria, eta argi ikusi nuen norantz jo”.

Munduko txapelketako rankingarako 2.000 puntu batu zituen.

tuen. “Puntu asko ziren, baina asko falta zitzaizkidan”. Espainiako distantzia luzeko txapelketa alboratu zuen, beste helburu handiago bat bilatzeko: 2016ko Munduko Txapelketa Hawaiin, triatleten Meka. Azken hilabetea etxetik kanpora eman du. Turkiako Iron Man erdian bigarren amaitu zuen, eta, joan zen asteburuan, postu berdina errepikatu zuen Malaysiako Iron Manean. Erakustaldia eskaini zuen korrika, maratonia 3 ordu eta 15 minututan eginda. Bizikleta zortzigarren tokian utzi, eta bigarren amaitu zuen (09.49.09), sei bider munduko txapelduna izana den Natascha Badmann-en aurretik.

Kona Pro Ranking-eko hamargarren tokian amaitu du denboraldia. Orain, atsedean hartuko du. Datorren denboraldi hasieran munduko txapelketarako sailkapena segurtatzen saiatuko da. “Zenbat eta lehenago sailkatu, orduan eta arinago hasiko nintzateke prestaketa lanetan”. 35 sailkatzen dira, eta kalkuluak diote puntu nahikoa izan ditzakeela, baina ez da fidatzen, eta, udaberrira begira, Iron Man bitan (bat distantzia erdikoa) parte hartzeko asmoa du. 2016ko irail-urrian distantzia luzeko munduko triatlloi txapelketa ere lehiatu gura du.

ADITUAREN TXOKOA

JUAN CARLOS PEREZ

Areto-futbola



Ondo hezita gaude?

Aurreko denboraldian, Mallabia taldeko hiru jokalarik areto-futbolarako epaile ikastaroa egin zuten. Hainbat astetan Bilbora joan, klase teorikoak hartu, azterketa egin, eta, azkenean, hirurek gaitzitu zuten.

Heldu zen partidua batean estreinatzeko sasoia. Federazioa joan ziren aktak jasotzera, eta, handik apur batera, deitu egin zidaten akta zelan betetzen den galdetzeko. “Zein prestaketa maila dute Bizkaiko areto-futbol epaileek?”, galdetzen diot neure buruari. Epaile bi ikusi izan ditut, baloia eskuagaz jotzearen, falta bat jaurtiketa libre ez-zuzena moduan adierazten. Ezagutzen dute araudia?

Epaile-lanak egitea oso gaitza da, eta hautemate akatsak logikoak dira; areago erregional mailan epaile bakarrarekin. Baina, aste-oro, kantxetan ikusten diren akats teknikoak beste kontu bat dira.

Urte askoan, futbol 11ko epailea izan nintzen, seguruena txarretakoa, baina gogoan dut, denboraldi guztietan, proba fisikoak zein araudiaren gaineko azterketak gaitzitzeko prestatu beharra izaten nuela. Eta asko ziren probak gaitzitzen ez zituztenak, eta epaile-lanetan hasi ezin zirenak.

Areto-futboleko epaile-lana egiteko eskatzen duten maila futbol 11n eskatutakoa baino askoz baxuagoa da. Beraz, ez da harritzekoa hainbeste epaile-lan eskas ikustea lurraldekako mailetan.

**Erredakzioan itzulia*

26an eta 30ean, Olazarreko finalerdiak erabakiko dira



Finalak abenduaren 31n jokatuak dituzte. Maialen Zuazubiskar.

> PILOTA

Olazar pilota txapelketako final laurdenak amaituko dituzte, datorren astean, Zaldibarko pilotalekuan. Hilaren 26an eta 30ean, binakako eta lau t'erdiko partidua bana hartuko ditu Zaldibarko pilotalekuak.

Datorren egunean, 21:30ean, Lerena najerarrak eta Aranguren aginagarrak kaiolan neurtuko dituzte indarrak. Binaka, Arteagak eta Erasunek Bakaikoaren eta Lasaren kontra jokatu dute.

Hilaren 30eko astelehenean, San Andres egunean, Peñak eta Salaberriak jokatu dute lau t'erdikoa, eta, binakakoan, Labakak eta Tabarrek Errandonearen era Martinezen kontra jokatu dute.

Nissan-Gaurisa garaipen gosez Vigoren kontra

> ERRUGBIA

Durango Nissan-Gaurisa errugbi taldea denboraldiko hirugarren garaipenaren bila irtengo da Vigoren kontra, domekan, 12:00etan, Arripausuetan. Liga hasiera irregular baten ostean, gorantz egin gura dute Oskar Astarloaren gizonak. Orain arte, garaipen bi eta bost porrot batu dituzte, eta sailkapenaren erditik behera daude. Vigo ere antzera dabil; Nissan-Gaurisa taldearen antzera, garaipen bi batu ditu, orain arte, talde galiziarrek.

90 GRADU
LAN BERTIKALAK
TRABAJOS VERTICALES

**FATXADA ETA PATIOEN
KONPONKETAK ETA MARGO LANAK**
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Tel.: 616 413 660
info@90gradu.com
Bernagoitia auzoa, 14 - ZORNOTZA

ALDAMIORIK GABE

MIEKO 4D

ESPECIALISTAS EN
ECOGRAFIA PRENATAL

Orain, Durangon, Miekko4D

Zure ekografiarik asatuena 50 euratik gora,
eta 20 euroko beherapenak
bigarren ekografiarik aurrera.

Olleria, 5 etxebaia DURANGO - Tel.: 690 048 681





Durangaldeko berbalagunen VII. Kultur Lehiaketa

1. Neiz izango da Durangoko Azoka?	2. Noiz ospatu da Berbalagunen antolatutako II. Mintzordroma?	3. Iurretako deiaherioaren zabalgarren urteurrena ospatu da?	4. Nor bustitatu da zikin kroazera?
a) 2015eko abenduaren 30k ira b) 2015eko abenduaren 40k ira c) 2015eko abenduaren 50k ira	a) azararen 11n b) azararen 18an c) azararen 19an	a) 25 b) 30 c) 30	a) Aitor Fernandez b) Javier Ruiz de Larrinaga c) Egoitz Murgaitia
5. Zabalgarren urteurrena ospatu du Platerena Kale Antzokia?	6. Zabal urte bete ditu Otxandiko bonbardaketak lekuko izan zen Bitter Garaiardotik aurrera?	7. Nori egon du 50. urteurrena diko Azokako kartela?	8. Zer pelikula aurkeztu da Donostiko Zinemaldian Durangoko Boleako produktorek?
a) 10.a b) 11.a c) 15.a	a) 99 b) 100 c) 101	a) Jose Luis Zumeta b) Juan Gortik c) Koldobika Jauregi	a) Oierzero eta Amilaren sekretua b) Oierzero eta Mari Domingoren sekretua c) Oierzero eta aitor prestatua
9. Zabal urte bete ditu Zaldibarko Castet herriko taberna?	10. Nori irabazi du Euskadiko Rallysprint Txapelketa?	11. Zein tabernatan zigilatu da urriaren 30ean tokatu den EuroMillai ariak?	12. Zabal kilometro kamatu ditu Durangaldeak?
a) 23 b) 24 c) 25	a) Iban Tardicio eta Iñigo Pelaez b) Enrique Barrenechea-Arandek eta Aritz Orasolak c) Aingeru Casado eta Aitor Urkioak	a) jai-biki taberna b) Aiz taberna c) jai-ai taberna	a) 240,13 b) 340,20 c) 440,50
13. Non dago Mikelidi izeneko txerria?	14. Motxoak dira Argitekako nekropeliko hilobi zaharrenek?	15. Haurteko zein herriko da mugarik egiten berriak?	16. Zabalgarren igai laburren lehiaketa antolatu du auzen Barakok?
a) Bilboko Museo Etnografikoan b) Kurutziagako museoan c) Etxurdi plaza	a) VII eta XI. mende bitartekoak b) V eta VII. mende bitartekoak c) IX eta XI. mende bitartekoak	a) Muxika b) Zortza-Bolcanek c) Durangok	a) Bizarrena b) Hingarrrena c) Liharranga
Izen-entzuenak eta telefonoak:		Erretziar zuzenean mehatza eta erretziar herriko odorekin saski-hogitai-ode erretziar-entzuenak, abenduaren 21. baino lehen. Bila, a-bok. bat.	




☎ **639 400 786**

www.durangaldeko.blogspot.com
durangaldekoak.org
Durangaldeko berbalagunen

Partekatu eta irabaz!



Partekatu



Berrizko belodromoa, Bizkaiko txirrindulari gazteen eskola

Bizkaiko Federazioak Berrizera bideratu ditu 2016ra begirako baliabide denak



Azarotik apirilera, 42 saio egingo dituzte haur kategoriatik junior mailara arteko gazteekin.

> PISTA J.D.

Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak Berrizera bideratu du 2016ari begira pistarako gordeta zuen diru-atal osoa. Horrela, Berrizko belodromoak egitura sendoago eta indartsuago bategaz aurre egingo dio hurrengo denboraldiari. Pistako txirrindulariak zailtzen jarraituko dute, baina, horrez gainera, ahalegin berezia egingo dute errepideko

gazte mailetak txirrindulariak hezten. Bizikleta gaineko jarduera (erreleboak ematea, gurpilean joatea, aurreratzea...) irakasteko eskola bihurtu gura du txirrindulari gazteentzat.

Bizkaian hiru belodromo daude: Berriz, Zalla eta Trapagarangoak. Zallakoa bota egingo dute; euriteen osteko uholdeak ekiditeko plana martxan jarri du udalak, eta belodromoak

errekaren ondoan dago. Trapagarangoak, aldiz, ez du pistako txirrindularirik ematen; han entrenatzen diren taldeak errepidean baino ez dira lehiatzen. Horregatik erabaki du federazioak indar dena Berrizera bideratzea.

“Baina baldintza bat jarri diet”, azaldu du Agus Ruiz Bizkaiko federazioko presidentek: “Ez dadila izan pistan aritzeko

asmoa duten txirrindularientzat bakarrik. Balio dezala gazte mailetak txirrindularien formaziorako ere”.

Beraz, formazioa eta teknikazioa, biak landuko dituzte. Formazioa, Bizkaiko taldeetan dabilen haur kategoriatik junior mailara arteko zuzendutako dago. Bizikletako oinarriak ikasi ditzakete. Ondoren, azarotik apirilera luzatuko diren 42 saioen ostean, interesatuta dauden gazteek pistako modalitatean sakontzeko aukera izango dute, teknikazio saioen bidez. Joan zen zapatuan egin zuten lehen saioa, eta, besteak beste, Durangaldeko Beste Alde-La Tostadora, Gaurisa Renault eta CAF Transport Engineering taldeko hainbat txirrindularik parte hartu zuten.

Raul Mena teknikari

Bizkaiko Federazioak sustatutako ekimen honen kudeaketa Durangaldeko Belodromoak Kluben kargu egongo da. Raul Mena —pistako Eustrak Euskadi taldeko zuzendaria— izango du teknikari, eta hainbat urtez Elorrioko Txirrindulari Elkarteko presidente izan den Joseba Gorostiza monitorea.

Eustrak Euskadi taldearentzat ere proiektu interesgarria da. Harrobiko lanean sakontzeko eta erreleboa bermatzeko aukera eskaini diezaioke.

Gonzalez eta Aspuru Tornosolo Kopako finalerdien bila, gaur

Kopako bi final laurdenetan parte hartuko dute, 19:00etatik aurrera

> TRINKETA

Trinketeko sei pilotaririk onenetakoekin gaur hasiko dute elite mailako Tornosolo Kopa, Abadiñon. Final laurdenetako partidu bi jokatu dituzte, 19:00etatik aurrera. Mikel Gonzalez berriztarra eta Asier Aspuru abadiñarra izango dira protagonistetako bi.

Gonzalezek Oier Gurutzealde astigarragarrenaren kontra

jokatuko du. Gaur egun, trinketean ikusi daitekeen partidurik interesgarrienetakoa da. Berriztarra Ipar Euskal Herrian jokatzen ari da aspaldian, modalitateko onenekin, eta joan zen astean, Baionako txapelketa irabazi zuen. Gurutzealde ere sasoi bete-betean heldu da Tornosolo Kopara; orain hilabete eskas, Mexikon jokatutako Munduko Kopan brontzezko domina ira-

bazi zuen, eta aurten, Euskal Liga ere poltsikoratu du. Gonzalez izango da faborito, bera baita, gaur egun, trinketeko izarra Hego Euskal Herrian, baina Gurutzealde gorantz doan pilotari gaztea da, azken asteetako lorpenek erakusten dutenez.

Bigarren final laurdenean Asier Aspuru eta Thierry Harismendy-k neurtuko dituzte indarrak. Aspuru iragan as-

teetan jokatu den promesen mailako Tornosolo Kopa irabazi du —finalean Aitor Arabiourrutia herrikidea menderatu zuen— eta garaipen horrek eman dio onenekin aritzeko eskubidea. Lesio txiki batetik indarberrituta dagoen Harismendy izango da faborito argia. Promesa mailako txapelketan ez bezala, Aspuru ez du irabazi beharraren presiorik sentituko gaur. Egoera hori bere onerako baliatuz, sorpresa ematen saiatuko da abadiñarra.

Tornosolo Kopan parte hartuko duen seikotea iazko txapelaldun Inhar Ugartek eta iazko azpitxapelaldun Ander Antxiak osatzen dute.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Getafe
· Zapatuan, 16:00etan, Urriksen.

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Lagun Onak
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Trapagaran
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaiaren.

MAILA GORENA

Zaldia - San Pedro
· Zapatuan, 16:30etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA

Zorrontzako - Busturia
· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

BIGARREN ERREGIONALA

Berriz - Artibai
· Domekan, 16:00etan, Berrizburun.

> ARETO-FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Elorrioko Buskantza B - Araiako Zalditxo
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

Mallabia Seguros Altaldi - Muskiz
· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA

Presion Break B - Betiortzi
· Zapatuan, 17:00etan, Berrzen.

Gu Lagunak - Ibaibide

· Zapatuan, 18:00etan, Landakon.

> SASKIBALOA

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Gernika
· Domekan, 12:00etan, Landakon.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Zornotza - Padura

· Domekan, 11:00etan, Ixerbekoan.

LEHEN ERREGIONALA

Anbotopeko - Selzur colegio de abogados
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

> ESKUBALOA

EUSKADI MAILA

Ibaizabal - Kukullaga

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Nissan Gaurisa - Vigo
· Domekan, 12:00etan, Arripausetan



HEKi
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

Umeentzako
erakustaldiak eta antolaketak

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK



08:00etatik 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

ALKIMAX


Alquilamos soluciones

ALTERNATIVAS
ECONOMICAS
INDUSTRIALES
CONSTRUCCION
SEGURIDAD
Y PROTECCION
AL TRAFICO

SEÑALIZACION




BIDEKO BARRERA



HESIAK



KONDAK




SEMAFOROK



SEÑALES

GANIMETA



ESTIRADILLA



FREGADORA



CARRISALIA



ASPIRADILLA

REMOBILITZA



IMPULSORIAK



AIRE KANDIAK



IMPULSORIAK



**HEZKOLA-
HEZKALOKAK**



FARDLAN

Elmas Industrias, S.L. - 48340 MIERLO (Bizkaia) - 946 854 550 - alkimax@elmas.net

www.alkimax.net



Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575n-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaie itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garaiea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETA TORRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garaiea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000n.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000n-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaie itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 balkoi. Garaie itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garaiea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garaiea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaie bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeke 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeke 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeke aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserrria. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garaiea.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

ASKATASUN ETORBIDEA: 499.000€



- 190 m2-ko etxebizitza, bi solairutan banatuta. 5 logela, egongela, sukalde handia, 3 komun eta 2 balkoi. 2 terraza. Garaiea. Bigarren garaiea aukeran. Aire egokituarekin. Eguzkitsua.

ARANDOÑO TORRE: 310.000€



- 112 m2 GUZTIZ BERRIZTATUA. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garaiea. Handia. Eguzkitsua.

FRANZISKO IBARRA: 275.000€



- 90 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garaiea eta ganbara.

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 225.000€



- 73.43 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 2 balkoi Ganbara. Berogailua eta igogailua.

MONTEBIDEO: 195.000€



- Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Garaie itxia eta ganbara.

ANTZO ESTEGIZ: 139.000€



- 77 m2. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Gas naturaleko berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan.

www.inmoduranguesado.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta 2 komun.
- ANDRA MARIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 terraza handi.
- ARAMOTZ: Halla, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garaiea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Balkoi 2. Garaiea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna 2. Terraza 2. Garaiea aukeran eta trastelekua.
- ERRENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garaiea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garaiea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Balkoia. Garaiea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garaiea eta trastelekua.
- GOIENKALEA: logela, sukalde-jangela eta komuna. 2 terraza. Trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Balkoia. Garaiea eta trastelekua.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna 2. Garaiea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Balkoia. Garaiea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: 2/3 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Garaiea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Garaiea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Balkoia. Garaiea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komuna 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna 2. Despentsa. Balkoia.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- URKIAGA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- IBAIZABAL. Apartamentua. Logela bakarra. Garaiea eta trastelekua. 180.000€.
- MONTEVIDEO. Apartamentua. Erdi berria. Erdialdean. Ganbara, garaiea eta trastelekua. 155.000€.
- MATIENA: Laubideta. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Garaiea aukeran. 165.000€.
- ERMODO. 100m2. 3 logela, 2 komun. Egongela. Terraza. Sukalde. Esekikotia. Ganbara. Garaiea. 268.000€.
- F.J. ZUMARRAGA. 93m2. 4 logela. Komuna. Egongela. Igogailua. 105.000€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- M. TORRE. 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Ganbara. Garaiea. 273.000€.
- IPARRAGIRRE. 98 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garaie itxia. 271.000€.
- MONTEBIDEO. 2 logela, egongela eta sukalde handiak. Ganbara eta garaie itxia. 195.000€.
- J. M. ALTUNA: 100 m2. 3 logela, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Ganbara eta garaiea.
- ASK. ETORBIDEA: 100 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garaiea. ETXE OSOA KANPORA BEGIRA. 250.000€.
- OLLERIA: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garaiea. 275.000€.
- FKO. IBARRA: 115 m2. 4 logela eta 2 komun. Terraza. 230.000€.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. Igogailua. Berriztatua. Eguzkitsua. 140.000€.
- ABADIÑO: Zelaia. Erdi berria. 2 logela. Trastelekua eta garaiea. 185.000€.
- F.J. de ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela eta egongela handia. Terraza. 186.000€.
- FKO. IBARRA: 100 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garaiea. 240.000€.
- ATXONDO. Etxabea lorategiarekin, 100 m2. 2 logela eta egongela. Ganbara. 210.000€.
- ZABALE: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Ganbara eta garaiea. 255.000€.
- BERRIZ: 110 m2. Erdi berria. 3 logela, 2 komun eta egongela. Garaiea aukeran. 180.000€.
- ABADIÑO: Erdi berria. 2 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Trastelekua eta garaiea. AUKERAN.
- S. INAZIO: 3 logela, 2 komun, egongela terrazarekin, sukaldea eta eskegitokia. Ganbara eta garaiea. EGUZKITSUA. 246.000€.
- ZUMALAKARREGI: 65 m2. Bulegoetarako egokia. 180.000€.
- TABIRA: Duplexa. 2 logela, 2 komun (komun nagusia hidromasajearekin), egongela, sukaldea eta eskegitokia. Trastelekua. Garaie itxia.
- S. INAZIO: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta eskegitokia. Trastelekua eta garaiea. 239.500€.
- ANTZO EZTEGIZ: 3 logela, komuna eta sukalde handia. Berogailua eta igogailua. 175.000€.
- SASIKOA: 3 logela, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Ganbara eta garaie itxia (aukeran). 206.000€.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Terraza. 179.000€.
- MONTEBIDEO: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Igogailua. 150.000€ (Negoziaigarria)

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- DURANGO: 160 m2. Gaur egun okindegia da. 220.000€ (lokala bakarrik hartzeko aukera)

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com


ANBOTO INMOBILIARIA ETXELAN
 NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO
 946 550 358 - info@inmobiliariaetxelan.com
 www.inmobiliariaetxelan.com

ETXEBIZITZAK SALGAI**DURANGO: ARTEKALE.** Erref. 667

- 76 m². 4 logela, komuna eta egongela-sukaldea. 2 balkoi. Trastelekua. Altzariekin. **99.500€.**

ABADIÑO: MUNTSARATZ. Erref. 658

- BOE ETA ETXEBIZITZA LIBRE BERRIAK TOKI PAREGABEAN. 2 logela, garajea eta trastelekua. **149.000€ + BEZa.** 3 logela, garajea eta trastelekua. **169.900€ + BEZa.**

ELORRIO: SAN JOSE. Erref. 512

- Berria. 90 m². 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 5 balkoi. Trastelekua. Igogailua. Altzariekin. **237.000€.**

ATXONDO: Erref. 657

- 80 m². 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Balkoia. Trastelekua. Altzariekin. **162.700€.**

BERRIZ: PRESATXO. Erref. 669

- 75 m². 3 logela, sukalde-egongela eta komuna. Balkoia. Berriztatze. **85.000€.**

PISUAK ETA BASERRIAK ALOKAIRUAN BEHAR DOGUZ. DOHAINEKO ZERBITZUA

www.inmobiliariaetxelan.com
Tel.: 946 550 358 · Whatsapp: 654 753 211

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak**ETXEBIZITZAK****SALDU**

Atxondo. Atxondon duplex oso eguzkitsua salgai. Guztira, 120 m², solairu bakoitzak 60 m². 1. pisuan, 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2. pisuan, gela 1, komuna, egongela eder bat, eta trastelekua. Tel.: 646-53 07 50 (Leire).

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! la amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.

Lekaitio. Lekeition Alde Zaharrean eta itsasoari begira 3 logelako duplex zoragarria salgai. Tel.: 650-18 33 05.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100 m² azalera eraikiak. Tel.: 695-77 31 41.

LOKALAK**SALDU**

Lekaitio. Lekeition 65 m² lokala salgai. Alde Zaharrean. Tel.: 650-18 33 05.

Lana - negozioak**LAN ESKARIAK****PERTSONAK ZAINDU**

Durango. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Tabernetan, garbiketan jarduten dut. Barruko zein kanpoko langilea. Esperientziagaz. Tel.: 632-20 31 55.

Durango. Andra euskalduna umeak zaindu eta eskolara

eramateko prest. Bizitza osoko esperientzia ume zaintzan. Tel.: 663-32 84 25. Amaia.

Elorrio. Gizon heldua naiz. Prest nago adinekoak paseoa edo medikuarengana eramateko. Aisia ekitaldietara (museoak, antzerkia, zinema) eta elizara ere bai. Ospitalera eramateko zein etxean laguntzeko ere prest nago. Etxez etxe irakurketak, etxez etxe informatika. Elorrioren eta Bizkaia osoan. Tel.: 690-28 60 71.

Durangaldea. Etxeko laguntzaile eta geriatría-bikote bat (gizona euskalduna eta autonomoetan alta emanda dago) prest dago etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Ospitalera eramaten ditugu, paseoak ematera, medikuarengana... bikote profesionala, ordutegi malgua, telemedikuntza. Esperientzia handia eta merke. Aseguratuta gaude. Tel.: 690-28 60 71.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka. 632-16 37 82.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Lanaldi osoa zein orduka. Erreferentziak baditut. Tel.: 659-08 81 85.

Durangaldea. Egunez zaintza eta garbiketa lanetan jarduteko prest. Kanpoko langilea. Tel.: 630-48 37 90.

Durangaldea. Egunez zaintza eta garbiketa lanetan jarduteko prest. Kanpoko langilea. Erreferentzia oso onak. Tel.: 632-99 23 83

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere aritzen naiz. Tel.: 631-36 54 87.

Durangaldea. Emakume arduratsua prest dago barneko edo kanpoko langile moduan jarduteko pertsona nagusiak zaintzen. Esperientzia handia eta erreferentzia onak. Tel.: 632-95 76 87.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketan. Tel.: 632-95 99 49.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Zortzi urteko esperientzia. Erresidentzia baimena. Tel.: 673-66 15 19.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Tabernetan, garbiketan jarduten dut. Barruko zein kanpoko langilea. Esperientziagaz. Tel.: 632-10 40 78.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Tabernetan, garbiketan jarduten dut. Barruko zein kanpoko langilea. Esperientziagaz. Tel.: 632-57 31 80.

Durangaldea. Asteburuetan eta jai-egunetan pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Durangon eta inguruko herrietan. Esperientzia handia daukat. Tel.: 631-44 98 31.

IRAKASKUNTZA

Durangaldea. Neska euskalduna, giza nutrizio eta dietetikan ikasketaduna, Lehen Hezkuntzan eta DBHn partikularrak emateko prest. Tel.: 685-72 59 36.

Durangaldea. Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntzan eta DBH partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 / 94-681 39 40.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Baserrian edo eraikuntzan lanean jarduteko prest nago. Tel.: 631-91 62 62.

Durangaldea. Olentzero moduan lanean jarduteko prest nago, eskoletan zein ekitaldi berezietan. Tel.: 651-36 97 54.

LAN ESKAINTZAK**OSTALARITZA**

Durangaldea. Sukaldaria eta zerbitzaria behar dira Durangaldeko jatetxe batean. Bidali curriculumarekin helbide honetara: solaguren13@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Durangaldea. Adineko pertsonekin paseatzen dut, esperientzia daukat arlo horretan. Prezio oso ekonomikoa. Deitu iezaidazu eta hitz egingo dugu, eskerrik asko! Tel.: 608-83 48 71.

GAINERAKOAK

Durangaldea. 90 gradu lan bertikalen enpresak lan-poltsa osatu nahi du. Horrelako lanetarako profila baldin baduzu, bidali CV-a helbide honetara: info@90gradu.com

GAINERAKOAK

Durangaldea. Jostun tailerra transferitzen da, jubilazioagatik. Tresna, bezero eta denda finkoekin. Tel.: 645-34 13 95.

Lekuan lekuko egutegia

Durangoko azokan eta ohiko saltokietan salgai

anboto

Anboto Komunikabideak

@anboto

www.anboto.org

2016
Durangoko azokan
anboto

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Azaroaren 21ean,
19:00etan, lurretan**

Kherau

Kherau taldea izango da lurretako 2015. urteko Musikaldia itxiko duena. Euskal tradizioko doinu eta berbak sorkuntza berrien oinarri hartzen ditu boskoteak, eta instrumentu zerrenda luzea baliatzen dute: kutxa, djembea, perkusioak, baxua, txirula, alboka, gitarra, bouzuki irlandarra, mandolina eta trikitixa, kasurako.



Antzerkia

:: BERRIZ

AZAROAREN 20an

18:00etan, 'Rawums', Kultur Etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 21ean

16:30ean eta 18:30ean, 'Rawums' (1 eta 4 urte artekoentzat), San Agustin kulturgunean.

AZAROAREN 22an

19:00etan, 'Etxekoak', San Agustin kulturgunean.

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 20an

17:00etan eta 19:00etan, 'Nest', Zornotza Aretoa.



Musika

:: ABADIÑO

AZAROAREN 21ean

19:30ean, Patxi García Gormilla organistaren eskutik, San Trokaz elizan.

:: DURANGO

AZAROAREN 21ean

22:00etan, La Otra kantautorea, Sorginola Gaztetxean.

AZAROAREN 21ean

22:30ean, Governors, Plateruenean.

AZAROAREN 26an

20:00etan, Kantulagun, Plateruenean.

AZAROAREN 27an

21:30ean, Durang(h)ots Sessions, Plateruenean.

:: ELORRIO

AZAROAREN 20an

22:30ean, Elorrioko Jazz Blues jaialdia: Mikel Andueza Quartet, Ateneoan.

AZAROAREN 21ean

22:30ean, Jazz Blues jaialdia: Murali Coryell, Ateneoan.

AZAROAREN 21ean

22:30ean, Punk Oi! Gaua: The Sinners + Smoking Barrels, Gaztetxean.

AZAROAREN 22an

20:00etan, Jazz Blues jaialdia: The Romanticos, Portalekua tabernan.

:: IURRETA

AZAROAREN 21ean

19:00etan, Kherau, Ibarretxe kultur etxean.

:: OTXANDIO

AZAROAREN 21ean

22:00etan, Nevadah taldea, Gaztetxean.



Erakusketa

:: DURANGO

AZAROAREN 29ra arte

Edurne Gorrotxategiren margolanak, Arte eta Historia Museoa.

AZAROAREN 29ra arte

Begira Photo: Pablo Trenor argazkilariaren 'Dena da iturri' erakusketa, Arte eta Historia Museoa.

AZAROAREN 29ra arte

Begira Photo: Jon Gorosperen 'Leihoen abiadura' erakusketa, Plateruenean.

AZAROAREN 29ra arte

Begira Photo: Rous Boisier eta Leo Simoesen 'Gara' proiektua, Merkatu plazan.

URTARRILERA arte

Elena Odriozola ilustratzailearen 'Tropezista' liburuko ilustrazio orijinalak, Artea liburudendan.

:: ZORNOTZA

ABENDUAREN 4ra arte

Bosteko 2015, Zelaieta zentroan.



Berbaldia

:: DURANGO

AZAROAREN 20an

18:00, 'Kurdistango gatazka', Sorginola Gaztetxean.



Jaiak

:: ZALDIBAR

AZAROAREN 22an

09:00etatik 13:30era, arku tiro txapelketa, XVIII. San Andres saria, kiroldegian.

11:00etan, XVII. Nekazaritza Azoka, Euskal Herria kalean.

AZAROAREN 27an

18:00etan 20:00etara, XXV. Argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, liburutegi zaharrear.

18:30ean, pintxoak Olazar futbol zelaian. Jarraian, Disco Music.

19:00etan, jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko dute, udaletxeko balkoitik. Ondoren, kalejira Koral elkarteko txistulari eta buruhandiek.

AZAROAREN 28an

12:00-14:00 eta 18:00-20:00, XXV. Argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, liburutegi zaharrear.

14:00etan, bertso-bazkaria, Gaztelekuan.

14:30ean, bazkaria Gaztetxean.

18:00etan, Polekeleke kale animazioa.

23:30ean, Skaleak + Ban Sound System taldeen kontzertua, Gaztetxean.

AZAROAREN 29an

10:00etan, Zaldibarko XIV. Mendi Bizikleta Martxa.

12:00-14:00, XXV. Argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, liburutegi zaharrear.

16:30-18:30, eskalada umeentzat, eskalada-murruan.

17:30ean, Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXIV. txapelketaren finala, Olazar pilotalekuan.

AZAROAREN 30ean

11:00etan, kalejira, Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketako trikitilariekin.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00, umeentzako parkea, kiroldegian.

12:00-14:00, XXV. Argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, liburutegi zaharrear.

14:30ean, jubilatuentzako bazkaria, Goierriko auzo-elkartean.

17:00etan, txokolate-jana kiroldegian, Guraso elkarteak antolatuta.

18:00etan, pilota partidak Olazar pilotalekuan.



Kontalaria

:: ABADIÑO

AZAROAREN 24an

18:00etan, Pello Añorga ipuin kontalaria, Udal Mediatekan.

:: IURRETA

AZAROAREN 27an

17:30ean (3-4 urte) eta 18:00etan (5 urtetik gora), Josu Jimenezen 'Kamishibai ipuinak', Bibliotekan.

20:00etan, Victoria Siedlecki argentinararen 'Mujeres de palabra', Bibliotekan.



Deialdia

:: IURRETA

AZAROAREN 27an

18:30ean, 2000 eta 2003 urteen artean jaiotakoei dantza talde berria sortzeko egindako deiaren barruko lehenengo entsegua, Aita San Migel plazan.



Ekitaldia

:: ELORRIO

AZAROAREN 25ean

19:30ean, III. Argazki lehiaketaren sari banaketa eta luntxa, Parra tabernan.



Aurkezpena

:: BERRIZ

AZAROAREN 27an

21:45ean, Andres Odriozola zuzendariaren 'Bingen' filmari buruzko solasaldia, Kultur Etxean.


:: DURANGO

AZAROAREN 20an

18:30ean, 'Armiarma txiki baten epopeia handia', liburuaren aurkezpena, Miren Uribealdea ilustratzailearen eskutik, Artea liburudendan.

AZAROAREN 27an

18:30ean, Eider Eibar ilustratzailea, 'Barrukoa' liburuaren aurkezpena, Artea liburudendan.



:: DURANGO | ZUGAZA 8 apellidos catalanes

- **barikua 20:** 19:30/22:00
- **zapatua 21:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 22:** 16:45/19:00
- **astelehena 23:** 18:30/21:00
- **martitzena 24:** 20:00

2. ARETOA

8 apellidos catalanes

- **barikua 20:** 19:30/22:00
- **zapatua 21:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 22:** 16:45/19:00/21:15
- **astelehena 23:** 18:30/21:00
- **martitzena 24:** 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA Yo, él y Raquel

- **domeka 22:** 20:00

Campanilla y la leyenda de la bestia

- **domeka 22:** 17:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA Ocho apellidos catalanes

- **barikua 20:** 20:30
- **zapatua 21:** 17:00/19:30/22:00
- **domeka 22:** 17:00/20:00
- **astelehena 23:** 20:15

Citizen four

- **martitzena 1:** 20:00

> **BOTIKAK**

BARIKUA, 20 09:00-09:00 • Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango • Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-22:00 • Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	ZAPATUA, 21 09:00-09:00 • Mugica Andra Maria 9 - Durango • Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-13:30 • Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango • Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango • Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango • Navarro Arteakalea 6 - Durango • Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango • Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango • Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango • De Diego Intxaurrondo 22 - Durango • Larrañaga-Balentiaga Berrio-Otxoa 6 - Elorrio Bartolome Gabiola 2 - Berriz • Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza • Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza 09:00-14:00 • Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta 09:00-22:00 • Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	DOMEKA, 22 09:00-09:00 • Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta • Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza 09:00-22:00 • Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza ASTELEHENA, 23 09:00-09:00 • Etxebarría Montevideo etorb. 2 - Durango • Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 • Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza MARTITZENA, 24 09:00-09:00 • Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango • Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 • Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza EGUAZTENA, 25 09:00-09:00 • Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango • Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 • Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza EGUENA, 26 09:00-09:00 • Navarro Arteakalea 6 - Durango • Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 • Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
--	--	--

> **ZORION AGURRAK**



> **Ikertxooo!** Azaroaren 20an zure lehenengo urtea ospatuko dugu. Zorionak, bihotza. Mila musu familiaren partez.



> Zorionak, **Madalen**, etxeko guztien partez, eta Bittorrek musu potolo bat bidaltzen dotsu, muuuuuuuuuuu!



> Zorionak, **Ziortza!** Seme-alaben eta senarraren partez, muxu potolo bat!



> Zorionak etxeko txikienari! Mosu handi bat denon partez!



> Zorionak, **Pototo!** Denbora aurrera doa, baina zu beti izango zara gure ume handia.



> Egunero ez dira urteak betetzen. Gozatu zure egunean eta opari asko izan ditzazula!



> Eguntxo batzuk berandu bada ere, Donostiako durangarra zoriondu nahi genuke: zorionak, **Malen**. Muxuak asko maite zaitugunon partez!



Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Asier** (609 znb.)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



DURANGOKO
SALTOKIETAN

17:30 – 19:30
KALE ANIMAZIOA

DURANGO
AZAROAK 27
BLACK
FRIDAY



“Makailaua pil-pilean eta amak egindako karakolak ditut gustuko”

Eneko Atxa du erreferente nagusi sukaldari gazte honek; Hilario Arbelaizen jarraitzaile sutsua ere bada

> AKUILUA Aitziber Basauri Eneko Atxaren Azurmendi jatetxeko Bistró Prêt à Porter espazioko sukaldariburua da Mikel Goikolea. 21 urte gaztasi zen erreferente nagusi duen sukaldariagaz praktikak egiten. Jateko kontuetan ez dago gustatzen ez zaion ezer, oso jatun ona dela dio.

Hiru Mitxelin izar dituen, eta Opinionated About Diving-en arabera 2015eko Europako jatetxe onena den Azurmendi jatetxean ari zara lanean. Presio handia sortzen du horrek? Bai, bueno... presioa beti egoten da, eta hori ona ere izan daiteke, gu geu ere garatzen joateko eta hobetzen joateko.

Noiz hasi zinen Azurmendin? Oso gazte hasi nintzen, 21 urte gaz. Praktikak egiten hasi nintzen, eta, astiro-astiro, garrantzia hartu nuen, orain nagoen tokira heldu arte: Bistró Prêt à Porterreko sukaldariburu naiz. Aurretik, Manolo de la Osaren jatetxean (Cuenca) ere egin nituen praktikak. Sukaldari handia hura ere; asko ikasi nuen harengandik ere. Handik etorri nintzen Azurmendira.

Ez ga gutxi, 26 urte gaz! Bai! Oraindik urte asko ditut aurretik lan egiteko (barrez).

Nolakoa da Eneko Atxaren mailako sukaldariagaz lan egitea? Sukaldaritza munduan dena izan da niretzat Eneko Atxa. Dakidan guztia erakutsi dit berak: kozinatzen, disziplina izate

ten, lan egiten... Berak trebatu nau, eta berari eskertu behar diot dakidan guztia.

Beti gustatu zaizu sukaldaritza?

Bai, txikitatik. Izekok beti izan du jatetxea, eta sukaldari izateak betidanik egin dit zirrarak.

Zeintzuk dituzu erreferente?

Bertan dut nagusia: Eneko Atxa bera. Horrez gain, gastronomiak duen garrantzia ikusita... asko! Hilario Arbelaizen jarraitzaile sutsua naiz.

Zein iritzi duzu MasterChef eta antzeko programez? Mordan dago sukaldaritza...

Batzuetan uste dut garrantzi larregi ematen zaiola, baina, sukaldaritza modan dagoela ematen du, eta, zergatik ez? Sukaldaria naiz, eta horrek halako garrantzia hartzeak mesede ere egin diezadake.

Jateko kontuetan, zeri ez zenioke inoiz ezetz esango?

Oso jatun ona naiz, eta dena gustatzen zait! Makailaua pil-pilean edo etxean amak egindako karakolak asko gustatzen zaizkit (barrez).

Badago gustatzen ez zaizun ezer?

Ez! Oso jatun ona naiz.

Intsektuak jateko araudia onartu dute. Munduko biztanleriaren laurdenak jaten ditu, baina, hemen prest gaude horretarako? Ohitura kontua da. Ni dena jatekoa naiz; jaten dela

esanez gero... Baina, norberak ikusi behar du prest dagoen ala ez, bakoitzaren kultura eta ohituren arabera da.

Zer da euskal sukaldaritza berria deritzon hori?

Apur bat moda kontua ere bada. Hala ere, gure herrialdeari indarra ematen diolakoan nago. Ondo baloratuta dago gure sukaldaritza, eta gauzak ondo egiten direla erakusten du; egindako lana gustuko du jendeak. Erreferente garrantzitsua dela uste dut.

Zer du Euskal Herriak horrenbeste eta horren maila handiko sukaldariak sortzeko? Galdera ona, ez dakit! Dugun klimatiko-eko produktu onak dira.

tugu eskura, eta hortik gauzak onak sortzen dira. Beti esan dut plater on bat sortzeko, produktua oso garrantzitsua dela. Izan daiteke hori izatea arrazoietarikoa bat, ez dakit. Baita nahiko jatun onak garela ere!

Zein da ondo kozinatzearen sekretua?

Denbora hartu behar da. Gauzak gogoagaz, maitasunez, eta ondo egitea. Etxean amamak egiten zuen moduan (barrez).



LAUHORTZA

JON ANDER RAMOS MARTINEZ

Historialaria



Amerikanuak

Azkenaldian, *memoria* eguna dela eta ez dela, *Gogora* institutuaren inaugurazio ofiziala tartean, biktima kontzeptuaz eztabaidatzen ibili gara, konturatu gabe garaile eta garaituen eztabaida sutsuan erortzeko arriskuarekin. Dudarik gabe, aurrerapauso itzelak eman dira alde batean zein bestean, nahiz eta batzuk hori ikusi nahi ez. Etenik ez duen prozesua aurrera doa.

Aurrera baino, atzera jauzi egingo dut oraingoan. Egun seinalatua gaurkoa. Berrogei urte dira Arias Navarro presidenteak Caudilloaren heriotzaren berri eman zuela. Momentu haiek historia liburuetatik bizitzeko aukera baino ez dut izan, eta behin baino gehiagotan, gertuko nagusiei egun horietako bizi-penak entzunak ditut: aldaketa garaia, aro ilun baten amaiera, etabarrekoak.

Berrogei urte bete dira ere *marcha verde*-tik, erregimenaren azken hauspoaldian *Spanish Sahara* arazoari irtenbide lotsagarri hura eman zenetik. Harrezkeroztik, sahararrak abandonatuak izan ziren, erbesteratuak.

Urtemuga hauekin bat Kataluniara begira gaude balizko *Republica Catalá*-ren sorrera dela eta, atrebentzia horren aurrean zer gertatuko ote den espero. Tankeak aterako dituzte? Tanke eta dekretuen artean, desobediencia eta legehaustez ari gara.

Far West-en moduan, indioen eta bakeroen artean murgildurik. Eta, atzera begira gauden honetan, berrogei urte bete dira ere 1992ko eta 2013ko argizaiola saridunek (Jon Bilbao eta Bill Douglass) *Amerikanuak* liburu sonatua argitaratu zutela, euskaldunak munduan jarri zituen lana, alegia.



Aboiz

www.aboiz.es

Arroitabeiti baserria,
San Migel auzoa, 2 GARAI
Tel.: 946 228 240



Erregeenetako menua · Arroitebaiti menua (astelehenetik ostiralera) · Enpresentzat adostutako menuak
Kontsultak egiteko, sartu webgunean